



Administrazio digitala eta herritarrekiko harremanak. Euskal administrazio publikoetarako aplikazioa

Azterlanaren laburpen exekutiboa
2021eko urria



www.ararteko.eus

Administrazio digitala eta herritarrekiko harremanak. Euskal administrazio publikoetarako aplikazioa.



Lan hau [Creative Commons Aitortu 4.0 Nazioartekoa \(CC BY 4.0\)](https://creativecommons.org/licenses/by/4.0/) lizentziapean dago



Arartekoaren argitalpenak eskuratzeko

- [web](#) gunean
- [posta elektronikoz](#) eskatuz
- aurrez aurre gure hiru bulegoetako batean, idatziz (Prado 9, 01005 Vitoria-Gasteiz) edo telefonoz (945 13 51 18)

ARARTEKO

Oinarrizko azterlanaren egilea: Rafael Jiménez Asensio
Itzulpena: Hori Hori S.A.L.

Aurkibidea

Akronimoak.....	6
Arartekoaren aurkezpena	7
1. Sarrera. Azterlanaren xedea, irismena eta egitura	10
2. Administrazio elektronikoari buruzko araudia. Oinarrizko erreferentziak eta analisi laburra	15
3. Herritarren eta administrazio publikoaren arteko harremanak, eten digitalean eta COVID-19aren eraginean arreta berezia jarrita	19
4. Eraldaketa digitala eta herritarren eskubideak. Prospektiba.....	26
5. Euskal administrazio publikoetako administrazio elektronikoaren egoeraren analisi enpirikoaren emaitzak. Herritarrekiko harremanak.....	29
6. Azterlanaren ondorioak eta eratorritako gomendioak	39
I.Herritarrek administrazio elektronikoaren ezarketan duten posizioaren analisia	
II.Administrazio elektronikoaren ezarketaren egoera. Herritarrentzako abantailak eta eragozpenak	
III.Kalteberatasun digitaleko egoeran dauden pertsonak, COVID-19aren krisian arreta berezia jarrita	
IV.Ordua eskatzeko sistema behar bezala arautu eta antolatu beharra	
V.Herritarrei laguntzeko eta administrazio-prozeduraren kudeaketaren arduradunak identifikatzeko neurriak	
VI.Zerbitzu elektronikoak erabiltzen dituzten herritarren eskubideak defendatzeko tresnak eta erakundeak	
VII.Oraingo eta etorkizuneko eten digitala lehengoratzeko ekintzak	
VIII.Herritarrek teknologia disruptiboari dagokienez dauzkaten eskubideen babesa	
IX.Euskadiko administrazio elektronikoaren egoera	
7. Bibliografia	59



AKRONIMOAK

AA	Adimen Artifiziala
APEL	39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena
DBEB	Datuak Babesteko Espainiako Bulegoa
DBEO	Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituenak eta 95/46/EE Zuzentaraua
DPBEDBLO	3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
EAO	Estatuko Administrazio Orokorra
EB	Europar Batasuna
EBEPE	Ekonomia Berreskuratu eta Eraldatzeko Proiektu Estrategikoa
NGEU funtsak	Next Generation EU Europako funtsak
SEL	11/2007 Legea, ekainaren 22koa, Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzkoa
SN	Sarbide Nagusia
SNE	Sarbide Nagusi Elektronikoa
SPAJL	40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena

ARARTEKOAREN AURKEZPENA

“Se trata de la aparición de un acoplamiento inédito entre organismos fisiológicos y códigos digitales, que se teje induciendo una tensión inestable entre aptitudes y misiones otorgadas a lo humano, por un lado, y a las máquinas, por el otro” (Organismo fisiologikoen eta kode digitalen arteko akoplamendu berri baten agerpena da, zeina batetik gizakiei eta bestetik makinei esleitutako gaitasunen eta zereginen arteko tentsio ezegonkorra eraginez eratzen baita)

(SADIN, Éric, *La humanidad aumentada. La administración digital en el mundo*, Caja Negra, Buenos Aires, 2017, 31. or)

“Ni las tecnologías ni las decisiones políticas de aprovechamiento de las mismas son neutras; además, su implantación en la Administración pueden tener consecuencias negativas si el Derecho no asegura el mantenimiento de las garantías jurídicas necesarias para la protección de los derechos de los ciudadanos” (Ez teknologiek ez haiek aprobetxatzeko erabaki politikoak ez dira neutroak; gainera, horrelakoak Administrazioan ezartzeak ondorio kaltegarriak izan ditzake zuzenbideak ez badu ziurtatzen herritarren eskubideak babesteko beharrezkoak diren berme juridikoak mantentzen direla)

(MARTÍN DELGADO, Isaac (zuz.), *La reforma de la Administración electrónica. Una oportunidad para la innovación desde el Derecho*, HAIN, Madril, 2017, 9. or.)

Ararteko erakundeak urte asko daramatza herritarrek informazioaren teknologiei dagokienez dauzkaten eskubideak eta, duela gutxiagotik, administrazio elektronikoari lotutako eskubideak indarrean daudela gogorarazten eta haiek hedatzeko eginkizun proaktiboa betetzen; izan ere, haren ustez, eskubide horiek erabiliz eta babestuz sozietate inklusiboagoa eta herritar parte-hartzaileagoak sustatzen dira. Gai horri emandako garrantzia dela eta, 2010. urtean *gardentasuna, herritarren partaidetza, gobernu ona eta datuak babestea* izeneko arloa sortu zen. Hain zuzen ere herritarrek administrazio elektronikoari dagokionez dauzkaten eskubideak modu errazean hedatzeko, Arartekoak 2012an [Herritarrek herri-administrazioekin bitarteko elektronikoen bidez harremanetan egoteko dauzkaten eskubideen dekalogo](#) egin eta argitaratu zuen, eta hurrengo urtean, [E-inklusioa eta Euskadin herritarrek IKTen bitartez gizartean eta eremu publikoan parte hartzea](#) txosten berezia. 2 urte geroago, txostena eguneratu, eta haren jarraipena egin zen.

[Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak](#) (APELak), pixkanaka gauzatu joan diren betebeharrak sartzean eragin duen arau-sustapenaren ondorioz, administrazio publikoen eta herritarren arteko harremanei dagozkien agertoki berriak sortu dira. Horregatik, gomendagarria da kontu

garrantzitsu hauetarako eta herritarren eskubideetan izan ditzaketen ondorioetarako beste hurbilketa monografiko bat egitea.

Azterlan honetan, oso bereziki interesatzen zaigu herritarren posizioa kontuan hartzea, alegia, aztertzea zein neurritan hobetzen duen administrazio digitalak herritarrek administrazio publikoekiko duten posizioa eta zein neurritan sortzen dituen kalitate hobeko zerbitzu publikoak. Halaber, baloratu behar da zein puntutaraino den lagungarria gobernantza publiko hobea lortzeko.

Beraz, azterlan honen helburua da e-administrazioari buruzko galdera klasikoenetako batzuei erantzutea. Hala ere, itaun, galdera eta gogoeta berriak zabaltzeko asmoa ere badu; izan ere, horrelakoek lanerako interesa pizten digute pertsona guztiek, gizarte-talde eta kolektibo kalteberenak eta gutxiengodunak barne, teknologia e-inklusiorako eta gizarte-sustapenerako aliatutzat jo dezaten eta administrazio elektronikoi dagokionez dauzkaten eskubideak eta eginbeharrak aitortu eta behar bezala gauzatu daitezen.

COVID-19a bat-batean sartu zen azterlana egiteko prozesuan, eta horrek, helburutik urrundu beharrean, egokia eta beharrezkoa dela berresteko balio izan digu. Herritarrek azken urtean Arartekoari helarazi dizkioten kexak lagungarriak izan dira arazo edo zailtasun teorikoak egoera errealetan zehazteko, zeinek izen-abizenak zituzten eta erakunde honetara administrazioarekin harremanetan jartzeko laguntza eske jotzen zuten pertsonen eragiten baitzieten. Kasu horien berri ematen du azterlanak pasarte batzuetan, eta horien ondorioz sortu zen gomendio orokor hau: [Arartekoaren 4/2020 Gomendio Orokorra, 2020ko azaroaren 5ekoa. Herritarrenganako arreta indartzeko beharra, administrazio publikoekiko harremanetan dituzten eskubideak baliatzean kalteak saihesteko eta bazterkeria digitalaren kontra borrokatzeko neurriak hartzeko larrialdi egoeretan, COVID-19aren pandemiaren ondoriozko egoeretan, besteak beste.](#)

Komeni da gogoraraztea Administrazio elektronikoa inspiratzen duten printzipioen benetako aplikagarritasuna eskaintzen den arkitektura teknologikoaren menpe ez ezik antolaketa- eta kudeaketa-kultura baten menpe ere badagoela eta kultura hori ezinbestekoa dela beti edozein gobernu-mailatan administrazio digitaleko eredu bat ezartzeko. Hain zuzen ere, administrazio elektronikoko sistema bat konfiguratzeko zenbait hedapen dakartza: teknologikoa, juridiko-administratiboa eta, hirugarrenik, antolaketakoa edo kulturala. Azken hori ez da garrantzi gutxiagokoa: egiturak aldatu, zereginak mudatu eta langileak berresleitu behar dira, digitalizazioak lanpostuetan dituen eraginen arabera. Era berean, funtzionarioen eta herritarren gaitasun digitalak une bakoitzeko eskakizunetara egokitu behar dira etengabe.

Hedapen teknologikoari buruz nahikoa lan egin da; juridiko-administratiboari buruz ere bai (nahiz eta administrazio-eredu formal presentzialarekiko nolabaiteko mimetismoa eduki); baina antolaketari edo kulturari lotutako doikuntzari dagozkion emaitzak eskasagoak dira, eta bide luzea dago oraindik ibiltzeko. Euskal administrazioek erronka hirukoitzari aurre egiten diote, eta Arartekoak bere misioaren berezkoa den beharrezko ikuspegia, eskubideak bermatzekoa, ekarriz lagundu nahi du.

Amaitzeko, eskerrak eman behar dizkiet kontsulta egin zaien administrazio publikoei eta, batez ere, Rafael Jiménez Asensio irakasleari, gure administrazio publikoetan aditua eta kontsultari ospetsua baita, orrialde hauetan laburbildu den oinarrizko txosten zehatza eta sakona idazteagatik.

Manuel Lezertua

Arartekoa

1. SARRERA. – Azterlanaren xedea, irismena eta egitura

Azterlanaren xedea

Aurkezpenean aurreratu den eskema kontzeptualetik abiatuta, kontuan izanik Administrazio publikoarekiko harreman digitalen eremuan *bi abiaduratan* mugitzen diren herritarren taldeak daudela (erakundeokiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzera behartuta daudenak eta ez daudenak) eta, azken finean, gaur egun ezin konta ahala aukera-leiho zabalik egotearen ondorioz, aztertu nahi dugu —beste gai askoren artean— zein den indarreko arau-esparruaren oraingo egoera eremu publikoko digitalizazioari dagokionez eta, zehazkiago, Administrazio publikoarekiko harreman digitaletan herritarrek dauzkaten eskubideei dagokienez, berehalako zein arazo ikusten diren garapen teknologikoan eta digitalizazio-prozesuaren aplikazioan, zein korapilo nagusi detektatzen diren eta nola egiten ari den eremu publikoan horrelakoak konpontzeko ahalegina. Era berean, analizatzen da zein neurritan eragiten edo kalte egiten dien eten digitalak talde edo pertsona jakin batzuei beren eskubideak erabili nahi dituztenean, nola antolatzen diren benetan behartutako subjektuen eta Administrazioaren arteko harreman digitalak (zein puntutaraino den beharrezkoa, izapidetze telematikoari datxekion konplexutasunagatik, hirugarrenen zerbitzuetara jotzea, horrek dakarren kostuarekin), zein den jakinarazpen elektronikoaren rola eta zein arazo sortzen dituzten praktikan (eta nola ari diren ebazten justizia-auzitegiak). Azkenik, atentzioa emateko asmoz, orobat kontuan hartuko da zein neurritan “gizagabetzen” dituzten administrazio publikoek digitalizazio-prozesuen bitartez herritarrekiko harremanak; izan ere, horrela paradoxikoki erakunde urrunagoak bihurtzen dira, ustezko irisgarritasuna gorabehera, eta, beraz, testuinguru birtuala hain despertsonalizatuta dagoenez, herritarrekiko enpatia indartzeko ekintzak proposatu beharko liriateke.

Azterlanaren ikuspegia eta irismena

Lehenik eta behin, jasota utzi behar da honako hau ez dela azterlana akademikoa; aitzitik, haren xedea, analitikoa izan arren, zera da: botere publikoei eta eragileei arazoak identifikatzeko tresna bat edukitzea laguntzea. Horregatik, azterlan honen helburua da arazo horietarako erantzunak edo irtenbideak bilatzea, herritarren eta Administrazio publikoaren arteko harremanak erabat hobetzeko asmoz —behin eta berriz esan dugun moduan—, ikuspuntu elektroniko edo digitaletik duten posizioari dagokionez. Beraz, ez die bestelako gaiei helduko eta ez du administrazio-prozedura harreman elektronikoaren ikuspegitik aztertuko, nahiz eta edukian gai horretako alderdi jakin batzuk ere jorratu.

Jakina, administrazio digitalen eta herritarren analisiarekin batera, azterlan honen xedea eta hedadura gaindituko luketen beste ikuspegi batzuk ere gehitu litezke, adibidez, gardentasunari lotutako kontuen analisia, publizitate aktiboa eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea barne hartzen dituen dimentsio bikoitzean (beste alderdi batzuek gain, hala nola erakunde barrukoa, lobbyei buruzkoa, etab.) edo

[Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 \(EB\) Erregelamenduak](#), datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituenak eta 95/46/EE Zuzentaraua (DBEOa) indargabetzen duenak, eta [abenduarien 5eko 3/2018 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoak](#) (DPBEDBLOak), araututako datu pertsonalen babesarekin zerikusia duten alderdi guztiak. Halaber, herritarren partaidetzaren ikuspegia, APELaren 133. artikuluan eta autonomia- eta toki-legerian arauz antolaturikoa, har liteke, edo datu irekien politika, zeina arauetan etengabe egokitzen ari baita; hain zuzen, egokitzapenak eskatuko du 2019ko ekainaren 20ko 2019/1024 (EB) Zuzentaraua, datu irekiei eta sektore publikoko informazioaren berrerabilerari buruzkoa, barne-antolamendu juridikoan txertatzea, beranduenez 2021eko uztailaren 17an¹.

Kontu horiek guztiek, zalantzarik gabe, herritarrek Administrazio publikoarekiko harremanetan duten posizioari eragiten diote eta gobernantza publikoaren berariazko alderditzat jo behar dira; izan ere, administrazio elektronikoa gobernantza publikoaren elementu bat da, barne-eremuan behintzat, nahiz eta, ikus daitekeen moduan, kanpo-proiektzio oso garrantzitsuak eduki. Hala ere, kontu horietarako guztietarako berariazko azterlanak egin beharko lirateke; beraz, batzuen aipamen puntualak alde batera utzita, ez dira bereziki tratatuko orrialde hauetan.

Azterlana egiteko, esparru horietan ospe ona eta ezagutza handia duten iturriek eskaintzen diguten informazioan oinarritu gara. Berrikuspenak garrantzizko ekoizpen intelektual, dokumental, estrategiko eta araugintzakoa sorrarazi digu eta, horri esker, administrazio elektronikoaren egoeraren argazki bat atera dugu, autonomia-erkidegoaz gaindiko analisi baten bitartez; izan ere, administrazio-araudia eta, beraz, administrazio elektronikoari eragiten diona, oinarritzkoa da.

Informazio-iturri horiek azterlan enpiriko baten bidez zabaldu dira; horretarako, 17 euskal administrazioak (Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorak, foru-aldundiak eta hiru lurralde historikoetako udalerrien lagin batek) Arartekoak bidalitako galde-sorta oso bati eman dioten erantzunak analizatu dira. Zehatz-mehatz, euskal administrazio hauek bidali dituzte betetako galde-sortak:

Eusko Jaurlaritza:

- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila.
- Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzua.

Foru-aldundiak:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantza Departamentua.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila eta Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila.

¹ Ikusi ekainaren 20ko 2019/1024 (EB) Zuzentaruaren 17. artikulua.

- Arabako Foru Aldundiko Diputatu Nagusiaren Saila, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazio Saila.

Udalak: Bilbo, Donostia, Gasteiz, Barakaldo, Getxo, Irun, Zamudio, Eskoriatza eta Laudio.

Jasotako informazioari esker, jakin dugu noraino ezarrita dagoen administrazio elektronikoa herritarrekiko harremanei estuen lotutako alderdietan, hots, zer-nolako sarbidea duten herritarrek zerbitzuetarako eta administrazio-prozeduren izapidetzerako, aldi bereko beste kontu batzuk ahaztu gabe (azterlanaren azken zatian txertatu dira).

Bi gauza zehaztu behar dira informazio-bilketari buruz. Lehenengoa kontsulta egin zaien administrazioen kopuruari dagokio. Egiazki, lagina adierazgarria da, baina udalei dagokienez handienen egoera islatzen du, eta toki-erakunde ertainen eta txikien errealitateari ikusgaitasun eskasagoa eman zaio. Kontuan izan beharreko bigarren alderdia da azken galde-sortak 2020ko urrian jaso zirela, hain zuzen ere, administrazioak COVID-19aren pandemiaren ondoriozko konfinamenduaren ostean pixkanaka berriro abian jartzen hasten ari zirenean; une horretan, gainera, administrazio elektronikoari lotutako proiektuak bizkortzen ari ziren, APELaren ondorio geroratu batzuek laster hartu behar zutelako indarra, 2021eko apirilaren 2an.

Txostenaren idazketa ia bukatuta zegoenean, agirien berrikuspenetik zetorren informazioa eta azaldutako landa-lanaren emaitzak edukita, 2021eko lehen hiruhilekoan arau-berrikuntza garrantzitsuak etorri ziren, bereziki [martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretua, sektore publikoaren bitarteko elektronikoen bidezko jardunaren eta funtzionamenduaren erregelamendua onartzen duena](#). Ondorioz, komenigarri iritzi genion berrikuntzak aztertzeari eta azterlanaren ondorioak haiek aintzat harturik eguneratzeari.

Azterlanaren egitura

Azterlanaren edukia hiru apartatutan, epilogo batean eta ondorio batzuetan banatzen da.

Lehen zatia zati nagusizat jo daitekeena du xede: herritarren eta administrazio elektronikoaren arteko harremanak, hain zuzen ere herritarrek bitarteko elektronikoz dihardutenean Administrazio publikoari dagokionez dauzkaten eskubideen ikuskeraren inguruan planteatuak. Horretarako, tesi hau hartzen da abiapuntutzat: administrazioaren existentziaren zentzua herritarrei zerbitzua ematea da, eta horrek ez du inoiz aldatu behar, harremanak modu telematikoan zein presentzian hasi.

Beraz, lanaren zati horren ikuspegia administrazio-prozeduraren hasierako aurretiazko jarduketei (informazioari, kontsultei, eskaeren planteamenduari) buruzko jardunera

mugatzen da, hori baita Administrazio publikoaren jardunean "sartzeko atea". Gero, arreta bi alderdi hauetan ardatzen da: batetik, Administrazioak harekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzera behartuta ez dauden subjektuei laguntzeko duen betebeharra; eta, bestetik, identifikazio eta sinadura elektronikoari buruzko kontuak (teknikoagoak izan arren, horiek ere badira garrantzitsuak) eta kasu honetan planteatutako arau-berrikuntzak. Era berean, arreta zehatza jartzen da herritarra Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzera behartuta ez dagoenean egiten diren jakinarazpen elektronikoaren kontu konplexuan. Lehenengo zatia osatzeko, COVID-19aren krisiaren ondorioz sortutako kontu batzuk eta haien aurrean jarduteko proposamenak biltzen dituen eranskin bat gehitu da. Eduki hori kontingenteagoa da, eta zati nagusian jorratzen dena osatzeko irakurtzea proposatzen da.

Bigarren zatiak izaera instrumentala dauka; izan ere, Administrazio elektronikoaren azpiegitura teknologikoko tresnak eta erremintak aztertzen dira bertan, APELean eta [Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean](#) (SPAJLan) jaso diren bezala. Zati horretan, analisi zehatza eta gehienbat deskribatzailea egiten da, besteak beste, tresna hauei buruz:

- Sarbide-puntu nagusi elektronikoa
- Egoitza elektronikoa
- Ahalordeen erregistroa
- Erregistro elektronikoro korra
- Gaitutako funtzionarioen erregistroa
- Artxibo elektronikoa
- Elkarreragingarritasuna

Administrazio elektronikoak tratamendu egokirako azpiegitura edukitzeko behar diren agerpen instrumentalak dira (identifikazio eta sinadura elektronikoarekin batera, baina horiek lehen zatian jorratzen dira). Haien ikuskera sistemikoa da, eta itxiera-elementua elkarreragingarritasuna da.

Tresna horiek arauaren ikuspegitik aztertzen dira eta, hala, alderdi kritiko batzuk eta egin daitezkeen hobekuntzak agerian jartzen dira, puntu horietan dotrina zilegituenari jarraituz.

Administrazio elektronikoaren azpiegitura teknologikoaren berezko tresna horietan zehar egiten den ibilbidea diakronikoa da. Hain zuzen, [Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legea](#) (SELa) labur aztertuko da. Izan ere, jada indargabetuta egon arren, gaur egun indarrean dagoen eta APELean eta SPAJLan jaso den arauketaren abiapuntua eta benetako inspirazio-iturria izan zen, eta haren edukien exegesi puntuala egiten da, hirugarren zatian egiten den analisi empiriko laburra aplikatzeko eredu bihurtu ahal izan daitezen.

Halaber, bigarren zatian administrazio elektronikoaren euskal arauketa-esparruari buruzko analisi laburra egiten da. Autonomia Erkidegoko Administrazio Elektronikoari bakarrik aplika dakiok, baina balorazio orokor batzuk gehitzen dira eta iradokitzen da —edo, behintzat, proposamen gisa aipatzen da, dotrina onenak ekarritakoarekin bat etorriz— Euskal Autonomia Erkidegoak Euskadiko gizartearen eta sektore publikoaren eraldaketa digitalerako lege baten bidez alderdi batzuk arautu behar dituela, gaur egun landuta ez daudenak edo ez oinarritzko araudian ez orain arte emandako euskal araudian behar bezala arautu ez direnak.

Lan hori egiteko, administrazio elektronikoaren arloko zenbait akademikok eta espezialistak Eusko Jaurlaritzak aginduta duela gutxi egin duten txostena hartu da erreferentziatzat. Txostena 2020ko azaroan argitaratu zen, liburu moduan, eta *El procedimiento administrativo y el régimen jurídico de la Administración Pública desde la perspectiva de la Innovación Tecnológica*² du izenburu. Oraingo esparru juridikoaren dotrina-analisia da eta azterlan honen alderdi batzuk aberastu ditu, baina funtsean xede hau besterik ez dauka: Euskadin etorkizunean administrazio elektroniko edo digitalaren arau-konfigurazioa egiteko zein tarte dagoen planteatzea.

Bigarren zatia garrantzitsua da zeren, lehenengoan azaldutakoarekin batera, hirugarren zatian egiten den analisi enpirikorako esparrua delako.

Izan ere, **hirugarren zatian** kontsulta egin zaien administrazioek lehenagoko paragrafoetan aipaturiko galde-sortaren bidez eman duten informazioaren analisia biltzen da.

Azterlanaren amaieran epilogo luze bat dago, non dokumentuetan edo jarraibideetan (*soft law* direlakoetan) jaso diren eta izaera prospektiboagatik eta herritarren nagusitasunagatik bereziki esanguratsuak diren ekarpenetako batzuk biltzen diren, baita ondorioei buruzko kapitulu bat ere.

Analisi guztian ahaleginak egin dira ikuspena estatikoa izan ez dadin; aitzitik, herritarren eta Administrazio publikoaren arteko harreman konplexuetan zabaltzen ari diren etorkizuneko erronketarantz proiektatu nahi dugu ikuspegia. Izan ere, datozen urteetan, disrupzio teknologiko handi batek guztiz menderatuko du ingurunea, eta, horren ondorioz, administrazio publikoek behar bezala kudeatzen ez badute, gaur egunekoak baino desparekotasun handiagoak sortzeko arriskua dago.

[Laburpen honek oinarri gisa izan duen material zehatzaren irakurketa errazteko, atal bakoitzaren amaieran bigarren informazio-mailan gehien garaturiko testuetara daramaten estekak txertatzea erabaki da, eta horrek, laburpena osatzen duten atal bakoitzean sakontzea ahalbidetuko du.]

² MARTÍN DELGADO, Isaac (zuz.), *El procedimiento administrativo y el régimen jurídico de la Administración Pública desde la perspectiva de la innovación tecnológica*, Centro de Estudios Europeos Luís Ortega Álvarez/EHAA/Iustel, Madril, 2020.

2. ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOARI BURUZKO ARAUDIA. OINARRIZKO ERREFERENTZIAK ETA ANALISI LABURRA.

Administrazio elektronikoari buruzko euskal arauak, oraingoz, honako hauek baino ez dira: [Administrazio Elektronikoari buruzko 21/2012 Dekretua](#) eta haren bigarren aldaketa (lehenengoak ez baitio eragiten azterlan honen xedeari), [Eusko Jaurlaritzaren 55/2020 Dekretuaren](#) bidez egina. Dena den, araudi hori ez zaie aplikatzen ez foru-aldundiei (erregistroak sortzeko antolaketa-neurri batzuk baitauzkate), ez euskal toki-erakundeei (arrazoi berberagatik).

Nolanahi ere, arau-esparrua hein handi batean euskal antolamendu juridikoarekiko heteronomoak diren arauak (Europako araudiak edo estatuko oinarrizko araudiak) baldintzatzen dutenez, azterlan honetan arau-xedapen horietan jarriko da arreta nagusiki.

Administrazio elektronikoari buruzko arau-testuingurua zenbait etapatan aurrera eginez joan da. Etapok jada ezagunak dira:

[Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legeak](#) (SELak) abiapuntu ona ezarri zuen. Haren ikuspegia, lehentasunez, sarbide elektroniko horretarako “herritarren eskubidea” nabarmentzea zen. Beraz, ardatza pertsonak eta haien eskubideen bermeak ziren, zehatz-mehatz, administrazio publikoek irisgarritasun elektronikoari dagokionez bete behar zituztenak. Horixe izan zen, zalantzarik gabe, haren arrakastarik handiena. Legea egin zen unea eta haren edukia kontuan izanik, esan daiteke oro har —dotrina zilegituenak aitortu duen moduan— lege ona izan zela³. Dena den, aplikazioa geroratu egin zen eta eskumeneko baldintzen edo baldintza irekien menpe jarri zen; hori dela eta, gobernu-maila batzuetan, bereziki toki-mailan, huts egin zuen. Hala eta guztiz ere, 2015eko erreformarako eredia bihurtu zen, zeina Informe CORA delakoan ([Administrazio Publikoen Erreformatarako Batzordea](#), 2012an sortua) inkubatu baitzen.

[Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea](#) (APELa) eta [Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legea](#) (SPAJLa) mugarri garrantzitsuak izan ziren bilakaera horretan, administrazio publikoen digitalizazio-prozesuari bulkada ausarta eman ziotelako (“aurrekontu-eskuragarritasunetatik” bereizita).

Arau-esparru berri horren planteamendua emaitza ekonomikoetan ardaztuagoa zegoen, krisi fiskal larriko testuinguruan eman zelako, eta garapen ekonomikoa eta administrazio-zamen murrizketa sustatzen zituzten neurriak defendatu zituen, administrazio publiko digitalizatuen alde eginez (pentsa daiteke “administrazio elektronikoaren” ikuskera tradizionala gainditzeko zuela). Halaber, kudeaketaren

³ Denen erakusgarri, MARTÍN DELGADO, Isaac, “La reforma de la Administración electrónica: hacia una auténtica innovación administrativa”, MARTÍN DELGADO, Isaac (zuz.), *La reforma de la Administración electrónica: una oportunidad para la innovación desde el Derecho*, HAIN, Madril, 2017, 7 eta hurrengoak.

efizientzian edo sektore publikoaren garapen teknologikoan jarri zuen arreta nagusia, ez herritarrengan; izan ere, zioen azalpenean administrazio publikoen digitalizazio-prozesuak talde horri ekarri behar zizkion abantailak aipatu arren, arauen xedapenez ez zen horrelakorik bistaritzen.

APELaren xede nagusia zen prozeduren kudeaketa digitalizatuko eredia azkenean eraginkorra egingo zuten tresnen mordoia eraikitzea. SPAJLa, berriz, osagai barnekoagoekin eraiki zen, zeren eta, esan den moduan, arau-eredua —berritasuna ukazina den arren— euskarri fisikotik (bulegoetatik eta paperezko izapideetatik) eremu teknologikora pasatzean oinarritzen zelako⁴. Hori, adibidez, “egoitza elektronikoaren” konfigurazioan bertan ikusten da, korrelatu fisikotik, hots, administrazio-bulegotik eratoritzen baita.

Egiazki, APELak eta SPAJLak ordezkaturako arau-esparrua da gaur egun indarrean dagoena ([urriaren 31ko 14/2019 Errege Lege Dekretua, zeinaz presako neurriak hartzen baitira segurtasun publikoko arrazoiengatik administrazio digitalaren](#), sektore publikoko kontratazioaren eta telekomunikazioen arloan, argitaratu ostean izandako azken aldaketekin, dekretu horretan bi legeon zenbait manu aldatu eta besteren bat gehitzen baita). Beste arau-aldaketa batzuk ere izan dira, eta azterlanean zehar aipatuko dira. Beraz, hori da aztertu nahi den kontua analizatzeko abiapuntutzat hartu behar den esparru juridikoa.

Baina berrikuntza garrantzitsuena eta, zalantzarik gabe, berehalako eta hurbileko eragin argienak dauzkana ([martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretua, sektore publikoaren bitarteko elektronikoaren bidezko jardunaren eta funtzionamenduaren erregelamendua onartzen duena](#)), da. Etengabe aipatzen da arauaren helburuetako bat “erraz erabiltzeko moduko zerbitzu digitalak bermatzea” dela. Halaber, errepikatzen da bitarteko elektronikoak erabiltzera behartuta ez dauden subjektuen harremanean borondatezkotasuna dela araua baina ahalegina egin behar dela herritarrei pixkanaka bide presentzialetik telematikora migratzea errazteko. Horretarako, zera erdietsi nahi da: “kanal elektronikoa erabiltzean interesdunak Administrazioarekin duen harremana erraza, intuitiboa eta eraginkorra izan dadila”. Horretarako, APELak ezarri ez zituen printzipioen panoplia bat biltzen da, nahiz eta batzuk SELetik etorri; horien artean, irisgarritasun-printzipioa (non desgaitasuna duten pertsonak eta adinekoak zehazki aipatzen diren), erabilerraztasunaren printzipioa eta pertsonalizazio- eta proaktibitate-printzipioa nabarmentzen dira. Hala ere, zioen azalpenean eta printzipio orokorrak arautzen dituen artikuluan (2. artikuluan) ezarritako jardute-filosofia hori ia ez da islatzen erregelamenduzko arauan; izan ere, bertan, herritarren ikuspegia desagertu egiten da Administrazio publikoan modu endogenoan bideratuagoa dagoen arau-ehun batean. Zerbitzu elektronikoetarako sarbiderako laguntza-kanalak (laguntza presentziala barne), identifikazio eta sinadura elektronikoa arautzen duten arauak eta gaitutako funtzionarioen erregistroari buruzkoak aipatzen diren arren, erregelamendua ez dago zuzendurik behartuta ez dauden pertsona fisikoengana, eta ez da ikusten

⁴ ALAMILLO, Ignacio, “La regulación de la tecnológica: la superación del modelo papel como elemento de la transformación digital innovadora”, MARTÍN DELGADO, Isaac (zuz.), *La reforma de la Administración electrónica: una oportunidad para la innovación desde el Derecho*, HAIN, Madril, 2017, 79 eta hurrengoak.

digitalizatorantz igarotzea errazteko eta administrazio publikoek harremanetarako bitarteko telematikoak eskatzen dituzten kasuetan laguntzeko errazte- edo sustatze-neurririk.

Estatuko araudi horretaz gain, kontuan izan behar da Europar Batasuneko zuzenbideko araudi zabala dagoela, baita Europako Batzordeak digitalizazioari buruz egindako komunikazio eta dokumentu ugari ere. Arau-esparruari dagokionez, zenbait zuzentarauk eta erregelamenduk⁵ gai horretan dituzten eraginak zuzenekoak eta etengabeak dira, Europako Batzordeak eremu horietan emandako ezin konta ahala *soft law* tresna ez aipatzearren; azken horiek ere beti hartu behar dira aintzat lan honen xedea analizatzeko.

Nolanahi ere, barne-zuzenbideko arau-esparru hori prozedurari dagokion ikuskera bati estu lotuta dago eta ez dio hainbeste erantzuten Administrazio digitalak ibilbide luzea egin duen zerbitzu publikoaren ideari. Izan ere, azaldu den moduan⁶, administrazio "elektronikoa" eraikitzeko, administrazio-prozedurak administrazio-zuzenbidearen kategoria nagusi gisa dituen oinarrizko osagaiak hartu dira abiapuntutzat. Eta horrek begi-bistako muga batzuk dakartza, eredia azkar samar, iraultza teknologikoak aurrera egin ahala, zaharkituta geratzeko arriskua dagoelako, iraultza hori etengabe eta bizkor gertatzen ari baita.

Joera horren zati bat, antza, egitate honetan ikus daiteke: adimen artifizialaren berezko teknologia gero eta indar handiagoz sartzen ari da, ez automatizazio-prozesuei dagokienez (SPAJLaren 41. artikuluan jada bilduta baitaude), baizik eta adimen artifiziala prozedura jakin batzuen ebazpenetan edo ebazpen-proposamenetan aplikatzeari dagokionez. Horren harira, azpimarratzekoa da gaur egungo arau-esparruetan ez dagoela babes-sistema edo -mekanismo berdintasuna hausten duten edo hauts dezaketen alborapenak edo joerak kontrolatzeko, murrizteko eta, nolanahi ere, algoritmoen bidez automatizatutako prozedurak gizakiek gainbegiratuko dituztela ziurtatzeko, nahiz eta horrek izan behar duen horrelako prozeduren berme nagusia. SPAJLan eta 203/2021 Errege Dekretuan bildutako arau-mugapenak berresten duen bakarra da kasu jakin batzuetan prozedura edo izapide jakin batzuk automatiza daitezkeela, baina ez ditu ebazten jarduketa automatizatuon erabilera orokortuak dakartzan ezezagun kontaezinak. Hortaz, erabileraren inguruan egon behar duten bermeak zalantzan geratzen dira, nahiz eta gero eta masiboagoa izango dela uste izan.

[Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 \(EB\) Erregelamendua](#), datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituenak eta

⁵ Adibidez, 910/2014 (EB) Erregelamendua, *eIDAS* Erregelamendu izenez ezagunagoa, edo duela gutxiago onetsi den Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra, 2016koa, zeinak 2018ko maiatzaren 25etik baitauka erabateko aplikagarritasuna.

⁶ BERNING PRIETO, Antonio David, "La Administración electrónica y los servicios públicos digitales al albor de los progresos de la Unión Europea y el 'Horizonte Europa 2020'. Su relación con las leyes 39/2015 de procedimiento administrativo común de las administraciones públicas y 40/2015 de régimen jurídico del sector público", MARTÍN DELGADO, Isaac (zuz.), *La reforma de la Administración electrónica: una oportunidad para la innovación desde el Derecho*, HAIN, Madril, 2017, 17 eta hurrengoak.

[95/46/EE Zuzentaraua](#) ⁷ indargabetzen duenak, adimen artifizialeko teknikak aplikatzearen ondorioz datu pertsonalak tratatzean aplikatu behar diren tresnen eta erreminten mordoa eskaintzen du eta, beraz, neurri tekniko eta antolaketa-neurri egokiak ezartzea ahalbidetzen du, baita horrelako teknologiak aplikatzeak pertsonen eskubideetarako ekar ditzakeen arriskuei dagozkien eraginak ebaluatzea ere.

Oraingoz, ez dago puntu horretarako arau-erregulaziorik prozedura automatizatuen aipamen juridiko orokorretatik haraindi doanik. Dagoen bakarra, ikusiko den moduan, [Eskubide Digitalen Gutuna](#) da; *soft law* direlakoen berezko osagaia dauka eta adimen artifizialeko teknologiak herritarren eskubideetan eta askatasunetan izan ditzakeen ondorioak arautu beharrari buruzko ohartarazpen egokia dakar. Beraz, gabezia horiek konpontzen dituen berariazko arauketa bat behar da. Komenigarria litzateke arauketa hori oinarrizkoa izatea edo, bestela, kasuan kasuko gobernu-mailak onestea, nolahi ere lege organikorako erreserbatutako eskubideen eta askatasunen esparru orokorra edo lege-erreserbaren berezko eremukoa errespetatuz; izan ere, eskubideetan duen eragina, kasu askotan, zuzeneko eta begi-bistakoa izan daiteke. Ikusi den moduan, 203/2021 Errege Dekretuak, zioen azalpenetan, onartzen du arautzeko behar hori egon badagoela, baina lege-maila eta erregelamendu-izaera dituzten arauetara bideratzen du, azken puntu horretan esku hartu gabe.

Nolanahi ere, arau-esparru horretatik abiatu behar dugu. Dena den, etorkizuneko Administrazio publikoko eredu digitalaren diseinuan garrantzitsuena ez luke izan beharko erakunde publikoak emandako zerbitzuaren ideiak, baizik eta herritarrek zerbitzu hori jasotzeak, eta haien eskubideak eta askatasunak nolahi ere errespetatu beharko dira.

[Administrazio elektronikoari eta herritarrekiko harremanei eragiten dien araudiaren azterketa xehatua honako epigrafe hauetan kontsultatu daiteke:

[I.- Administrazio Publikoa eta herritarrak. Aurrez aurreko administrazioa versus Administrazio elektronikoa](#)

[II.- Administrazio elektronikoa eta herritarrak 11/2007 Legean](#)

[III.- Administrazio elektronikoa eta herritarrak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legean](#)

[IV.- Aurreiazko konparatiboa. 11/2007 Legea eta 39 eta 40/2015 legeak, herritarrak Administrazio Publikoarekin dituen harreman elektronikoen ikuspuntutik](#)

[V.- Administrazio Publikoarekin harremanak bitarteko elektronikoen bidez izan behar dituzten subjektuei buruzko arau-esparrua. Lotura formala eta lotura faktikoa](#)

[VI.- Herritarren eskubidea eta Administrazio elektronikoa](#)

[VII.- Administrazio Publikoarekin harremanak bitarteko elektronikoen bidez izateko eskubidea eta betebeharra. Administrazioarekin harremanak elektronikoki izateko arau-betebeharraren salbuespena pertsona fisiko gehienentzat. Betebehar faktikoa COVID-19aren krisitik eratorritako ondorio gisa.](#)

⁷ Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra; aurrerantzean, DBEOa.

VIII.- Identifikazioa eta sinadura elektronikoa prozeduran eta administrazio-jarduketetan

IX. Jakinarazpen elektronikoak: aipamen berezia Administrazio Publikoarekin harremanak bitarteko elektronikoen bidez izatera behartuta ez dauden pertsona fisikoei

X. 203/2021 Errege Dekretua, martxoaren 30ekoa, sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko Erregelamendua onartzen duena

XI.- Eskubide Digitalen Gutuna.

Arau-errepaso hau osatu gabe geratuko litzateke administrazio/herritar harreman hori ahalbidetu dezaketen azpiegitura teknologikoen behaketa zehatzik gabe. Azpiegitura horiek Azterlanaren bigarren zatian ikertzen dira:

I.- Aurrekariak: Azpiegitura teknologikoen arautzea SELean eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio elektronikoari buruzko araudia, APELaren eta SPAJLaren aurrekoa.

II.- Administrazio elektronikoen azpiegitura teknologikoen arautzea APELean eta SPAJLean

III.- Administrazio Elektronikoaren azpiegitura teknologikoen tresnak.

IV. Konstituzio Auzitegiaren 55/2018 Epaia, maiatzaren 24koa, APELean administrazio elektronikoen harira egin diren zenbait aurreikuspenei dagokienez

V.- Euskal arau-esparru berri baterantz Administrazio elektronikoen arloan: alternatibak bertara egokitzeko.]

3. HERRITARREN ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN ARTEKO HARREMANAK, ETEN DIGITALEAN ETA COVID-19AREN ERAGINEAN ARRETA BEREZIA JARRITA

Gizarte garaikidearen digitalizazioa itzulbiderik gabeko prozesua da. Bada denbora iraultza teknologikoa (4.0 iraultza) gure artean dagoela, eta prozesuaren azelerazioa geldiezia da. COVID-19aren krisiak joera areagotu egin du. Alde batetik, pandemiak enpresen, herritarren eta langileen digitalizazio-prozesuak nabarmen ugaritu ditu, bai kualitatiboki, bai kuantitatiboki; bestetik, administrazio publikoarekiko harremanetan bide telematikoak erabiltzeko *betebehar faktikoa* areago hedatu da, batez ere ordua eskatzea ezinbestekoa den kasuetan. Gainera, Europar Batasunak bultzatuta berreskurapen ekonomikorako hartzen ari diren neurrien jarduketa-ardatz nagusietako bat digitalizazioa da, eta horrek, zalantzarik gabe, aipaturiko joera gehiago sustatzea ekarriko du.

Testuinguru horretan, guztiz zentzuzkoa da digitalizazio-prozesu bizi hori herritarren eta administrazio publikoaren artean sortzen ari den harreman-esparru berriaz gogoeta egitea, euskal administrazio publikoak erreferentziatzat hartuta, jakina, baina kokatzen diren eta haien eskumenean eta erantzukizunen iturria den egitura orokorrean aztertuta.

Izan ere, administrazio publikoen digitalizazio sakona ezin da barne-prozesu soiltzat jo, Administrazioaren bokazioa eta zentzua herritarrei zerbitzuak emateko instantzia izatea delako eta, beraz, herritarren baliabide eta gaitasun digitaletara eta bitarteko horiei ematen zaien erabilerara egokitu behar du bere erritmoa, eta aldi berean aurrera egin (hori, besteak beste, baliabide elektronikoen irisgarritasunaren menpe egongo da). Hala, sektore publikoaren digitalizazioaren gakoetako bat trantsizio-sistema egokiak, biztanlerik atzean uzten ez dutenak, ondo antolatzean datza. Trantsizio-eredu horretan, ezinbestekoa da Administrazioak herritarrei prozesuan laguntzea eta hurbila, atsegina, enpatikoa eta laguntzailea izatea, erantzun automatizatuak ematea edo, are txarrago, erantzunik ez ematea saihestuz.

Digitalizazio-prozesuak, gainera, Administrazioaren eta herritarren artean lehendik zeuden harremanak aldatzen ditu, funtsean administrazio-jardunaren alderdi fisikoan zein pertsonalizatuan edo presentzian oinarrituta baitzeuden (bulego publikoetan, paperezko espedienteetan, euskarri fisikoz egindako izapideetan, arreta pertsonalizatuan, pertsonak elkar ikustean eta abarretan) eta duela gutxi arte herritarrek erakunde publikoen egoitza eta azpiegitura fisikoetara sarritan joan behar baitzuten mota guztietako izapideak egiteko. Pixkanaka inkubatuz joan den paradigma-aldaketa momentu biderkatzailea izan du pandemiaren ostean, eta itzulbiderik gabeko bidea da.

Administrazio elektronikoen delakoaren aldeko argudio klasikoek (jada administrazio elektronikoen esan beharko litzaioke)⁸ administrazio presentziala administrazio digitalari kontrajartzea sustatzen dute eta etengabe aipatzen dituzte bigarrenak lehenengoarekin erkatuta dauzkan abantailak (bulego birtualak urteko egun guztietan eta ordu guztietan daude zabalik, joan-etorriak eta kostuak saihesten ditu, ez du paperik erabiltzen eta, beraz, ekologikoa eta ekonomikoa da, jendeari arreta emateko azpiegitura edo eraikin publikoen beharra murrizten du, ziurrenik enplegu batzuk ezabatzen ditu eta, enplegatu publikoen telelanarekin konbinatuta, ingurumen-jasangarritasuna sustatzen du, beste abantaila ekonomiko batzuek edo zuzeneko nahiz zeharkako kostuei lotutakoez gain). Administrazio elektronikoa paperik erabiltzen ez duela edo "0 paper" ereduak dela eta administrazio presentzian papera nagusi dela dioten kontrajartzeak, antza, modernotasuna eta tradizioa bereizten ditu. Baina gauzak ez dira hain sinpleak, azterlan honetan zehar ikusiko den moduan.

Harreman telematiko edo birtualak dituen abantaila ugari eta eztabaida ezinak baino asko gutxiagotan aipatzen dira administrazio elektronikoen oztopoak izan daitezkeenak, batez ere kontuan izanik berandu ezarri dela ondorio guztiekin, hain zuzen, 2021eko apirilaren 2an; data horretatik aurrera, APELa erabat aplikatu behar da, azken xedapenetatik zazpigarrenak ezartzen duen moduan. Baina erabateko aplikazio hori formala da; izan ere, ikuspuntu materialetik, administrazio publiko askok oraindik ez daukate irtenbide edo tresna teknologiko egokirik APELaren erabateko aplikagarritasuna babesteko, eta are gutxiago administrazio guztien sistema

⁸ Hala ere, arau-esparruan nagusiki lehen adiera erabiltzen jarraitzen denez, hemen gaur egun nagusi den lege- eta arau-izendapena mantenduko dugu: Administrazio elektronikoa. Dena den, kasu batzuetan, bi nozioen erabilera bereizketarik gabe txandakatuko dugu.

elektronikoen erabateko elkarreragingarritasuna bermatzeko. 203/2021 Errege Dekretua presaka (irismena ulertzeko ia astirik gabe) argitaratu zen, APELaren erabateko aplikagarritasuna hasi baino hiru egun lehenago, eta, horren arabera, administrazio publiko guztiek elkarri eragin diezaioketen sistemak edukitzeko betebeharra gain hartu behar dute; halaxe ohartarazten da, adibidez, 60. artikuluan, erregistroen interkonexio-sistemari dagokionez. Beraz, administrazioen eginbeharra da elkarreragingarritasuna benetakoa egitea eta, era berean, datu-transmisioa bermatzea (61. artikulua), baina “salbuespenez” onartzen da kasu batzuetan ezinezkoa izango dela (203/2021 Errege Dekretuaren 61.2 b) artikulua). Hortaz, ezin da alde batera utzialdi luzeagoan edo laburragoan, kasuan-kasuan, euskal administrazioek (edo behintzat haietako batzuek) ezingo dituztela benetan bete APELean eta 203/2021 Errege Dekretuan jasotako xedapenak. Horrek nahasmendua sor dezake eta, gainera, ezaugarri aldakorra izango da zein administrazioekin harremanetan jartzen diren eta zein tresna edo irtenbide teknologiko erabiltzen den (ahalordeen erregistroa, gaitutako funtzionarioen erregistroa edo elkarreragingarritasuna, eremu horietan baita nabariena ezartzeko atzerapena). Horrek kalte egin diezaiokie herritarren posizioari. Izan ere, arau horietan ez dira aipatzen edo ez dira behar bezala aipatzen administrazio digitalak oraingo fasean eta fase aurreratuenean sor ditzakeen desparekotasunak —eta hori bereziki jorratu behar da azterlan honetan—. Desparekotasunon agerpen mingarriena eten digital delakoa da; COVID-19aren etapan askotan ikusi da eta, kasu batzuetan, larria izan da. Adibidez, harrigarria da 203/2021 Errege Dekretuak, [Espainiako Agenda Digitala 2025](#) eta [Administrazio Publikoak Digitalizatzeko Plana](#) argitaratu ondoren eman baitzen, ez aipatzea berariaz eten digitala eta ez hartzea inolako neurririk bide presentzialetik digitalerako trantsizioa errazteko, ontzat ematen duelako aukeraprintzipioa mantentzen dela (eta, beraz, herritarrek aukeratzen duela, teorian, Administrazio elektronikorekiko harreman-modua), nahiz eta praktikan beti horrela ez izan.

Baina eten digitala lehendik ere bazegoen, administrazio elektronikoa agertokian sartu zenetik fenomeno ohikoa eta erreala izan da eta. Lehen urratsetan azalpen edo justifikazio bat eduki zezakeen arren, digitalizazio-prozesuak aurrera egin ahala arazoak azaltzen zailagoak dira. Egia da botere publikoek neurri batzuk hartu dituztela eten digitala ixteko edo haren ondorioak leuntzeko, baliabide teknologiko egokiak eskuratzeko zailtasunak dauzkaten edo gaitasun digitalik garatu ez duten pertsonen eta taldeen eragiten baitie bereziki. Oraindik ere bide luzea egin behar da eten digitalok benetan ixteko, generoari, adinari, ekonomiari eta abarri dagozkie eta.

Arartekoak [E-inklusioa eta Euskadin herritarrek IKTen bitartez gizarlean eta eremu publikoan parte hartzea](#) txosten berezian eman zuen kontu garrantzitsu horien guztien berri, lehen aipatu dugun moduan. Bertan, 4 eten digital aipatzen ziren:

Sarbidearen eten digitala

Erabilera-eten digitala

Eskuratzeko eten digitala

Partaidetza-eten digitala

Nolanahi ere, desparekotasun horiek ez dira gaur egun agertzen diren bakarrak. Izan ere, sortzen ari den teknologia gero eta disruptiboagoa da, eta haren ugaritzea, efektuei eta ondorioei dagokienez, biziagoa izango da denboraren poderioz. Administrazio publikoak ezin dira prozesu horretatik kanpo geratu; aitzitik, epe laburrean izango diren inguruabarrak eta testuinguruak aurreikusi beharko dituzte. Zehatz-mehatz, teknologia horiek atariko arazo bat dakarte, alegia, nola antolatu herritarrekiko harremanak.

Zalantzarik gabe, esan den moduan, COVID-19aren krisia eragin handiak eta bat-bateko aldaketak, bai sozialak, bai ekonomikoak, sortzen ari da, eta horiek digitalizazio-prozesuei eta herritarren eta Administrazio publikoaren arteko harremani ere eragiten diete. Beraz, erabakigarria da ikustea nola bideratzen den mundu analogiko/digitala agertoki digital/digitalerako trantsizioa, ziurrenik oso bizkorra izango baita.

Pandemiak gizartearen eta sektore publikoaren digitalizazioan izan duen eragina ere izugarria izan da, baina are handiagoa izan da Administrazio publikoaren eta herritarren arteko harremanen aldaketa, batzuetan errotikoa izan baita, bereziki presentzialitatearen eta birtualitatearen arteko dikotomiari dagokionez, gauzak ikusteko modu hori bi administrazio desberdinen ondorioa balitz bezala. Aitzitik, Administrazio publiko deritzogun erakundearen arrazoi existentzialak, gaurko konstanteekin lehen iraultza liberaletan sortu baitzen, betikoa izaten jarraitzen du: herritarrak objektibotasunez zerbitzatu, betiere interes orokorra xede edukiz eta Konstituzioari, legeari eta zuzenbideari erabat jarraituz. Horrenbestez, Administrazio publikoak bere erro existentzialari eusten dio, nahiz eta bitartekoak eta teknologia aldatu, herritarrak eta interes orokorra zerbitzatzeko ideia haren DNA dagoelako eta pertsonen funtsezko eskubideen errespetuak ere haren funtzionamenduaren premisa izan behar duelako. Esentzia hori aldatuz gero, beste erakunde bat izango litzateke, teknologiak ez baititu aldatu haren xedeak, orientazioa eta ikuspena, ezta haren misioa eta balioak ere. Izan ere, ezer ez da aldatu xedeei dagokienez, are gutxiago tresnak edo bitartekoak desberdinak izateagatik. Eta, Administrazio publikoaren funtzio existentzial horren printzipio batzuk aldatuko balira herritarrak hein batean bitarteko elektronikoz harremanetan jartzen direlako, prozesu horietaz berriz hausnartu beharko litzateke nahi ez diren ondorioak dituzten nahasmenduetan ez erortzeko.

Administrazio publikoaren eraldaketa digitalak, barne-eraginkortasuna irabazteko ez ezik, batik bat herritarrek harekiko duten posizioa hobetzeko eta, hortaz, bere hartzaille naturalari, herritarrari, zerbitzu publiko hobeak ere emateko balio du; hau da, bizitza errazagoa, atseginagoa, samurragoa egiteko, kostu gutxiago sortzeko eta herritarren eskubideak hobeto bermatzeko.

Illo horretan, kezkarria da bitarteko elektronikoen bidezko jardunaren eta funtzionamenduaren erregelamenduak etengabe berretsi arren herritarren eta Administrazio publikoaren arteko harreman elektronikoa borondatezkoak direla pandemia luze honetan egitateek argi eta garbi agerraraztea horrelako harreman telematikoak egiatan ezartzeko joera etengabea, arau-estaldura egokirik gabe, edozein

izapide egiteko ordua eskatu beharrekin eta telefono mugikor adimenduna nahitaez eduki beharrekin argiro ikusi den moduan; izan ere, horrelakorik ez daukana besteak baino oso egoera txarragoan geratzen da, telefono bidezko arreta eta arreta presentziala bigarren mailakoak direlako edo existitu ere existitzen ez direlako.

APELaren eraginkortasuna 2020ko apirilaren 2ra arte geroratu zenez, pandemiaren ondoriozko testuinguruak gizartearen eta Administrazio publikoaren digitalizazioan ezin konta ahala eraldaketa (telelana, bideokonferentzien edo bilera birtualen erabilera orokortua, bitarteko digitalen bidezko prestakuntza, etab.) sortu duenez eta pandemiaren fase jakin batzuetan herritarren eta Administrazioaren arteko harremanetan konplexutasunak ikusi direnez, azaldutako inguruabarretan gogoeta hau egin behar dugu.

Azterlanean jorratzen diren kontu batzuei, COVID-19aren krisiaren lehen etapari eragiten diotenei, Arartekoaren gomendio orokor honetan heldu zaie: [Arartekoaren 4/2020 Gomendio Orokorra, 2020ko azaroaren 5koa. Herritarrenganako arreta indartzeko beharra, administrazio publikoekiko harremanetan dituzten eskubideak baliatzean kalteak saihesteko eta bazterkeria digitalaren kontra borrokatzeko neurriak hartzeko larrialdi egoeretan, COVID-19aren pandemiaren ondoriozko egoeretan, besteak beste.](#) Pandemiaren testuinguru gogor eta konplexuaren ondorioz herritarren arretan zeuden gabezia batzuk, zeinak lan honen idazketan aurrera egin ahala jada agertuz baitzihoazen, ugaritzearen emaitza partzial edo goiztiarra izan zen.

Nolanahi ere, APELaren azken xedapenetatik zazpigarrenean jasotako agindu batzuk (ahalordeen erregistro elektronikoiari, erregistro elektronikorokorrari, gaitutako enplegatu publikoen erregistroari, Administrazioaren sarbide-puntu nagusi elektronikoiari eta artxibo bakar elektronikoiari buruzkoak) 2021eko apirilaren 2az geroztik erabat aplikagarriak direnez eta, batez ere, sektore publikoaren bitarteko elektronikoen bidezko jardunaren eta funtzionamenduaren erregelamendua onartu denez, beste aldi bat hasi da administrazio publikoen digitalizazio-prozesua bizkortzen ari dela dirudielako, nahiz eta 2007ko eta 2015eko legeen bidez eta 2021eko erregelamenduaren bitartez antolatu den lege-eredu guztiaren abantailek, antza, herritarrengana zeharo heltzeko luze joko duten.

Asimetria nabarmena dago pertsona fisikoen talde jakin batzuek Administrazio publikoarekiko harremanetan bide telematikoa erabiltzeko arau-betebeharren ondorioz dauzkaten zamen eta zama horiek elkarreragingarritasunari eta informazioa eta agiriak aurkeztetik salbuesteari dagokienez ekarri beharko lituzketen abantaila hipotetikoaren artean, baita eskaerak eta idazkiak edozein erregistro elektronikoren bidez aurkezteko aukerari dagokionez ere; kontu horiek, kasu askotan, ez diete onurarik ekartzen pertsona-talde horiei. Beraz, betebeharrak aldebakarrekoak dira, APELa benetan indarrean egon den lau urte hauetan behintzat.

Gakoa ez da hainbeste administrazio elektronikoen azpiegitura teknologikoko tresna horiek guztiak edukitzea; izan ere, zenbait erakunde publikok, EAEko batzuk barne, badauzkate erabat abian edo, behintzat, arrazoizko ikuskatze-egoeran dauzkate

dagoeneko, nahiz eta beste batzuek oraindik urrats ausartak egin behar dituzten tresnok berenganatzeko eta horrela herritarren eskakizunei erantzun ahal izateko. Gaia sakonagoa eta sistemikoagoa da.

Horrenbestez, kontua ez da *administrazio publikoen garapen teknologikoko irla aurreratuak* edukitzea, Eduardo Gamero⁹ irakasleak baliatutako nozioa erabiltzearen; aitzitik, Administrazioaren barne-funtzionamendurako ez ezik batez ere, hemen interesatzen zaigunerako, herritarrentzat dituen kanpo-inplikazioetarako ere eraikitako administrazio digital edo elektronikoko eredu baten funtzionamenduaren gakoa elkarreragingarritasun holistiko edo integraleko sistema bat ezartzean datza; izan ere, helburu hori lortzen ez bada, baliteke administrazio publiko bakoitzean barne-eraginkortasuna irabaztea, baina herritarren eskubideak ez dira funtsean hobetuko, ezingo dietelako onurarik atera Administrazio batean dauden datuen, informazioaren eta agirien interkomunikazioari eta interkonexio horren abantailei. Hau da, herritarren egoera hobetzeko ez da nahikoa administrazio-kontu ugari "etxetik" izapidetu ahal izatea; gainera, aztertu behar da zein puntutaraino ateratzen dien onura herritarrak APELaren 35. artikuluan (edo lege-testu beraren 28. artikuluan) jasotako eskubideei, hots, Administrazioak eskatzen duen eta administrazioen batek edo batzuek badaukaten agiririk etengabe ez aurkezteko eskubideari.

Lehenago adierazi den moduan, badirudi bitarteko elektronikoen bidezko jardunaren eta funtzionamenduaren erregelamenduak ezartzen duela erabateko elkarreragingarritasuna jada ezin dela geroratu eta administrazio publikoek beren kabuz bilatu behar dituztela herritarrek agiririk ez aurkezteko duten eskubidea ebazteko bitartekoak, erregelamenduaren 61. artikuluan xedatutako salbuespena ohikoa bihurtzen ez bada. 60., 61. eta 62. artikuluetan jasotako neurriak eta erregelamendu horretan aipaturiko datu-bitartekaritzarako plataformak abian jartzea erabakigarria da herritarren edo interesdunaren egoera kualitatiboki hobetzeko, bai administrazio-prozeduretan, bai administrazio publikoekiko harremanetan. Elkarreragingarritasun erlatibo edo alde bikoko ereduak, berriz, gauzak hobetu ditzakete, baina ezin dituzte herritarrak egoerarik onenean kokatu.

Izan ere, Europako digitalizazioak administrazio elektronikoari dagokionez duen helburuetako bat —Batzordeak berak errepikatu duen moduan— Europako erabateko elkarreragingarritasuna erdiestea da. Dena den, helburu hori erdiesteko bitarteko urratsak gainditu behar dira eta, lehenik eta behin, barruko lurralde-elkarreragingarritasuna lurralde historikoan bertan, hots, Euskal Autonomia Erkidegoan, lortu behar da, baita estatu-mailan ere.

Hala eta guztiz ere, gaur egungo eredu administrazio publikoaren nagusitasunetik abiatzen da, oraindik ere herritarrak jotzen duelako administrazioa jardun dezala eskatzeko (formatu elektronikoan nahiz paperean, zeina gero espediente elektroniko bihurtzen den). Hurrengo urratsa, oraindik burutzeke baitago, zera da: Administrazioa

⁹ GAMERO CASADO, Eduardo, "Reparto competencial y posibilidades competenciales", MARTÍN DELGADO, Isaac (zuz.), *El procedimiento administrativo y el régimen jurídico de la Administración Pública desde la perspectiva de la innovación tecnológica*, Centro de Estudios Europeos Luís Ortega Álvarez/EHAA/lustel, Madrid, 2020, 89. or

bera "ireki dadila" herritarrarentzat, elkarreragingarritasun-sareen eta -sistemen bitartez edo sarbide-puntu unibertsalaren bidez, eskura dituen erraztasun edo tresna-panoplia guztiak eskainiz izapideak eta denbora aurreztu ditzan, administrazio-zamak kendu ditzan eta makina burokratikoa sektore publikoak osotasun holistiko eta elkarreragingarri gisa badauzkan agiri edo informazioez elikatu beharretik aske gera dadin. Sektore publikoaren bitarteko elektronikoen bidezko jardunaren eta funtzionamenduaren erregelamenduaren xedea elkarreragingarritasuna gehiago luzatu gabe ezartzen duen arau-esparruari eragitea da; izan ere, Administrazio publiko bakoitzaren esku uzten du beharrezko tresnak aktibatzea eta interesdunak administrazioek badauzkaten datuak aurkezten ez dituen erantzun egokiak ematea, dirudenez Administrazioen arazoa delako ikusitako gabezia horiei erantzutea (erregelamenduaren 61. artikulua). Dena den, trantsizioa erregelamenduzko arauak antza uste duen baino motelagoa izango da.

Izan ere, *once only* kontzeptua oraindik oso urrun dago, behin eta berriro nabarmendu arren lortu beharreko errealitatea dela. "Herritarren karpeta" ez da behar bezala aurreratu kasu batzuetan, sarritan elkarreragingarritasunari lotutako arazoengatik eta, halaber, datu pertsonalen babesarekin eta DBEOak ezartzen duen baimenaren araubide juridiko berriarekin edo DPBEBLOak administrazio publikoen jarduneko tratamenduaren oinarri legitimoek dagokienez sartu zituen ñabardurekin sor daitezkeen tentsioengatik ([Datuk Babesteko Espainiako Bulegoak](#) eta, duela gutxiago, [Datuk Babesteko Euskal Bulegoak](#) Administrazio publikoaren eremuko tratamenduaren oinarri legitimoa zer den eta zer ez den zehaztean izan duten jarrera bereziki garrantzitsua izan da alderdi horretan).

"Herritarren karpeta" behin eta berriro agertzen da sektore publikoaren bitarteko elektronikoen bidezko jardunaren eta funtzionamenduaren erregelamenduan. Haren 7. artikuluan oro har aipatzen da egoitza elektronikotan area pertsonalizatu bat sartu ahalko dela, interesdunek "beren informaziorako, eragiten dieten administrazio-izapideen jarraipenerako eta Administrazio publiko eskudunaren eremuko jakinarazpen eta komunikazioetarako" sarbidea izan dezaten. Egia da 8. artikulua, "herritarren karpeta" figura berriaz arautzen duena, ez dela oinarrizkoa eta Estatuko Administrazio Orokorrari eta sektore publikoko haren entitateei bakarrik aplikatzen zaiela. Hala ere, zeharka agintzen da Administrazio publiko bakoitzak antzeko ezaugarriak dituen figura bat sor ditzala, egiatan egiten ari den moduan, eta 59. artikulua aukera ematen du administrazio publikoek beren area pertsonalizatuak edo herritarren karpetak integratzeko Estatuko Administrazio Orokorrarenak diren herritarren karpetetan.

Zalantzarik gabe, azaldutakoarekin bat etorritik, une hau bereziki aproposa da analizatzeko eta ebaluatzeko nola egiten dioten aurre euskal administrazio publikoek erronka estrategiko izugarri horri, erakunde-egitura irekiak eta gardenak, kontu eman behar dutenak eta, beraz, gobernantza publikoko edo gobernantza adimenduneko politika batean kokatuta daudenak, eraikitzeko, kontuan hartuta ikuspegi horretatik ezin

dutela bistatik galdu eten digitalari edo, agertoki txarrean, kohesio sozialari lotutako arrisku posibleak.

[Balorazio sakonago bat herritarrek COVID-19aren garaian administrazioarekin izandako harremanen inguruan eta agerian dauden arrakala digitaleko egoeren inguruan, honako atal hauetan kontsultatu daiteke:

[I.- Sarrera: Administrazio irekia, itxia edo hibridoa. Pandemiaren ondorioak zerbitzu publikoen prestazioan eta herritarrentzako arretan](#)

[II.- “Aurretzako hitzordua”. Aurrekariak eta orokortzea COVID-19aren testuinguruarekin](#)

[III.- Euskal administrazio publikoen herritarrentzako arreta harreman telematikoak ezartzeko](#)

[IV.- Digitalizazioa, herritarrak eta arrakala digitala\]](#)

4. ERALDAKETA DIGITALA ETA HERRITARREN ESKUBIDEAK. PROSPEKTIBA

Informazioaren eta komunikazioen teknologien hasierako bulkadak, Interneten garapenak, baina, batez ere, telefonia adimendunaren, Gauzen Interneten, *big dataren* eta *blockchain* teknologiaren agerpenak eta, beraz, iraultza teknologikoaren gero eta eragin handiagoak (digitalizazioari, automatizazioari eta adimen artifizialari dagozkien hiru aldi gainjarriekin) ezin konta ahala zalantza sortu dute, baita Administrazio publikoaren eta herritarren arteko harremanen eremuan ere —lehenago aipatu den moduan—. Eta horixe da azterlan honetan benetan interesatzen zaiguna eta arreta nagusia jasoko duena, nahiz eta herritarren eta administrazioaren arteko harremanak kokatzen diren arau-, gizarte-, ekonomia- eta teknologia-ingurunea ere begiratu behar den.

Lehenago, azterlanean jorratzen diren arazo edo kontu batzuei buruzko zenbait zertzelada iradoki dira. Baina arazoaren analisia ezin liteke, inola ere, kontuaren oraingo egoerara mugatu. Izan ere, makinek algoritmoen bidez ebazten dituzten administrazio-prozeduretan egiten den datu-tratamenduari lotutako arazo berriak sortzen ari dira; hain zuzen, gardentasunaren printzipioa erabakigarria da horrelako prozeduren (edo, hobeto esanda, haien ondorioen edo emaitzen) trazabilitatea zehaztean, eta, horrenbestez, identifikatu behar da zein den iturburu-kodea, nola eta zergatik diseinatu den horrela eta, hala badagokio, zein alborapen dauzkan edo eduki ditzakeen. Administrazio-prozeduren automatizazioak (SPAJLaren 41. artikuluan jasota baitago eta sektore publikoaren bitarteko elektronikoaren bidezko jardunaren eta funtzionamenduaren erregelamenduaren zenbait pasartetan ere islatuta baitago) eta, zehazkiago, adimen artifizialaren aplikazioak etorkizuna izateari utzi diote eta orainaldi bihurtu dira¹⁰. Eta arazoak ugaritzen hasi dira, baita talde oso kalteberetan proiektatuta ere (adibidez,

¹⁰ Ikusi, adibidez, HUERGO, Alejandro, “El proyecto de Reglamento sobre la Inteligencia Artificial”, *Almacén de derecho*, 2021eko apirilaren 17a, eskuragarri hemen: <https://almacenederecho.org/el-proyecto-de-reglamento-sobre-la-inteligencia-artificial>

gizarte-laguntzak izapidetzean edo hirugarren adineko pertsonekin edo beste talde kaltebera batzuekin izapideak egitean). Kontu horiei heltzea ere alderdi garrantzitsua eta beharrezkoa da, batez ere herritarrak tratamendu automatizatu horietan duen posizioari dagokionez, eta aztertu behar da zein neurritan eragin dakiekeen Administrazio publikoarekiko posizioari eta eskubideei.

Aditu-talde batek [Europako Batzordearen](#)¹¹ ekimenez duela gutxi prestatu duen dokumentu batek azpimarratzen duenez, teknologia digitala eragin sakona izaten ari da gure ekonomietan eta gure gizarteetan, nahiz eta aurreikuspenen arabera oso disruptiboa izango den eraldaketa-prozesuaren hasieran gauden oraindik. Nolanahi ere, eraldaketa digitalaren hurrengo olatua inklusiboa eta jasangarria izango dela bermatu behar da, bestela desparekotasunak areagotu daitezkeelako eta, kasu horretan, barne-digitalizazioan disfuntzioa sor litekeelako, baita gizartearen eta herritarren benetako digitalizazioa lortzeko arazoak ere.

Eta alderdi hori interesatzen zaigu bereziki orrialde hauetan: oraingo administrazio elektronikoa eta haren etorkizuneko konfigurazio digitala batez ere eta ezer baino lehen inklusiboa izatea. Azken zehaztapen hori ezin da erretorikoa izan, benetakoa baizik.

Erronka asko daude, bai bitarteko elektronikoen benetako erabilerari, bai datu pertsonalen babesari dagokienez, baina baita gero eta maizago bitarteko telematikoz bideratzen diren prestazioak eta zerbitzuak eskuratzeari dagokionez ere, biztanle batzuek oraindik sarbide konplexua daukatelako, baliabide teknologikoak falta zaizkielako edo are gaitasun digital nahikorik ez dutelako. Kontua da disrupzio digitala gero eta biziagoa izango dela. Eta, horregatik, botere publikoen eta, bereziki, Administrazio publikoaren zeregina erabakigarria bihurtzen da bidegabetasuna gizarte teknologiko aurreratuetan sar ez dadin eta azkenean eredu dual bat, non biztanleriaren estratu batzuek lehen mailako baliabide eta gaitasun digitalak dauzkaten eta pertsona-talde handi batzuek baliabide edo gaitasun mugatuak dauzkaten edo batere ez daukaten, ezar ez dadin. Desparekotasun edo bazterketa digitala gaur egungoa baino handiagoa ere izan daiteke administrazio publikoek neurri eraginkorrik hartzen ez badute.

Europar Batasunak zeregin garrantzitsua bete nahi du eraldaketa-prozesuan, eta horren emaitza dira trantsizio digitaleko politika guztiak, baita nagusiki (baina ez bakarrik) [Next Generation EU funtsen](#) bidez jarduketa-ildo horiek arrakasta izateko eta une honetan digitalizazioarekin zerikusia duen guztian liderrak diren herrialdeen (Txinaren eta Ameriketako Estatu Batuen) aurka lehiatu ahal izateko abian jarri diren baliabide finantzario eskergak ere.

Next Generation EU funtsetan oinarritutako berreskurapen ekonomikoaren ondorioz, ezinbestekoa izango da baliabide publikoen kopuru handiak bai euskal gizartearen bai administrazio publikoaren eraldaketa digitala xede duten inbertsio-proiektuetan

¹¹ Ikusi dokumentu hau: EUROPAKO BATZORDEA, *Shaping the digital transformation in Europe*, European Commission DG Communications Networks, Content and Technology, 2020ko iraila, eskuragarri hemen: <https://op.europa.eu/es/publication-detail/-/publication/917c520f-fd56-11ea-b44f-01aa75ed71a1>

inbertitzea. Horrek tentsioak sortuko ditu herritarren eta administrazioaren arteko harremanean, sektore publikoaren digitalizazioaren bidez gero eta gehiago sustatuko delako harreman horiek digitalak izatea, eta bide presentziala edo fisikoa baztertuz joango da. *Espainiako Agenda Digitala 2025* eta [Adimen artifizialari buruzko Europako estrategia](#) (zeina geroago Espainiari aplikaturiko estrategia propio baten bitartez zehaztu baitzen) irakurri besterik ez da egin behar, azterlan honetan aipatzen diren beste dokumentu askoren artean.

[Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 12ko 2021/241 \(EB\) Erregelamenduak, erresilientzia- eta berreskurapen-mekanismoa ezartzen duenak](#), % 20ko gutxieneko atalasea ezartzen du digitalizaziorako berariazko funts horretatik datozen baliabide finantzarioetan. Gobernu zentralak Europako Batzordeari 2021eko apirilaren 30ean bidalitako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planak guztizkoaren % 29ra igotzen ditu baliabide finantzario horiek, baina zenbatespenean beste funts batzuk ere sartzen dira. Ondorioz, ezin da zalantzan jarri digitalizazioa (baita administrazio publikoena ere) inbertsio-lehentasan bat izango dela datozen urteetan. Komeni da nabarmentzea Europako ikuspegiak, ikusiko den moduan, pertsonaren nagusitasuna, funtsezko eskubideak, askatasun publikoak eta gizarte demokratikoaren balioak hartzen dituela abiapuntu. Digitalizazioa, bai, baina testuinguru horretan.

Izan ere, Europako politika horren barruan¹², Europako balioak, giza eskubideak eta pertsonaren duintasuna bera gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira teknologia horien erabilera publikoa herritar gehienentzat sartu eta normalizatzearen aldean, teknologiek zorrozki alda baitezakete herritarren eta Administrazioaren arteko harremanaren ikuskera tradizionala. Beraz, adimen artifizialeko teknologiaren eta administrazio publikoek aplika ditzaketen gainerako teknologien ikuskera antropomorfikoa eta etikoa defendatzen du Europar Batasunak eta, horrela, pertsonak jartzen ditu halabeharrez jarduketan erdigunean.

Nahiz eta bitarteko elektronikoen bidezko jardunaren eta funtzionamenduaren erregelamenduak, 203/2021 Errege Dekretuan jasotakoak, zioen azalpenean “teknologia disruptiboak heldu ahala gertatzen ari diren aldaketak” aipatu eta “arauketa-esparru egoki bat, bai lege-mailakoa, bai erregelamendu-mailakoa, eduki” beharra nabarmendu, kontua da artikuluetan ez duela ezer esaten teknologia disruptibo horiei buruz; aitzitik, prozedura edo administrazio-jardun automatizatuak buruzko aipamen puntualak baino ez ditu biltzen (adibidez, 13., 20., 21. eta 61.5 artikuluetan). Gabezia hori jada zalantzan jarri da erregelamenduaren edukiaren inguruan egin diren lehen iruzkinetan eta hausnarketetan¹³.

¹² Ikusi, adibidez, EUROPAKO BATZORDEA, *Libro Blanco sobre la Inteligencia Artificial. Un enfoque europeo orientado a la excelencia y la confianza*, COM(2020) 65 final, Brusela, 2020-02-19, eskuragarri hemen:

https://ec.europa.eu/info/sites/default/files/commission-white-paper-artificial-intelligence-feb2020_es.pdf

¹³ ALMONACID, Víctor, “Comentarios de urgencia al decreto-ley 14/2019, de 31 de octubre, por el que se adoptan medidas urgentes por razones de seguridad pública en materia de administración digital, contratación del sector público y telecomunicaciones, *Nosoloaytos*, Blog oficial de Víctor Almonacid, 2019ko azaroaren 5a, eskuragarri hemen: <https://nosoloaytos.wordpress.com/2019/11/05/comentarios-de-urgencia-al-real-decreto-ley-14-2019-de-31-de-octubre-por-el-que-se-adoptan-medidas-urgentes-por-razones-de-seguridad-publica-en-materia-de-administracion-digital-contratacion-del-se/>

Halaber, jakitun izan behar dugu mota horretako teknologiek datu pertsonalen babesean duten eragina funtsezko beste eskubide eta askatasun publikoetan izan dezaketen eraginaren bezpera besterik ez dela, teknologia horiek daukaten irradiazio-efektuaren ondorioz; izan ere, *datua* da haien lehengaia, eta horretatik abiatuta eraikitzen dituzte administrazioan aplikatzeko eta esku hartzeko ereduak. Beraz, Arartekoaren moduko erakunde bat, zeinaren xede existentziala pertsonen eskubideak babestea eta Administrazio publikoa gainbegiratzea baita, ezin da ikuspegi horretatik urrundu. Azterlan honen epilogoan, adibidez, [Datuk Babesteko Espainiako Bulegoaren](#)¹⁴ dokumentu berri-berria analizatzen da, sortzen ari diren eta neurri handiagoan edo txikiagoan administrazio publikoetan jada aplikatzen ari diren teknologiak barne hartzen dituen, eta zehazten da zein mailatan eragiten dieten pertsonen eskubideei.

[Digitalizazioaren erronken inguruko eta eraldaketa digitalaren garaian administrazio publikoaren eta herritarren arteko harremanen joera-ildoen inguruko azterketa sakonago bat Azterlaneko Epilogoaren honako epigrafe hauetan kontsultatu daitezke:

[I. Sarrera](#)

[II.- Europar Batasuna](#)

[III.- Espainia. Erakunde nagusiak](#)

[IV.- Euskal Autonomia Erkidegoa.\]](#)

5. EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAREN EGOERAREN ANALISI ENPIRIKOAREN EMAITZAK. HERRITARREKIKO HARREMANAK.

Dagokion apartatuan azterlanerako erabilitako metodologiaz hitz egitean azaldu den moduan, araudi aplikagarriaren eta gaiari buruzko txosten eta azterlan ugariren dokumentu-analisiak gain, euskal administrazio publikoetako administrazio elektronikoaren egoerari buruzko azterlan enpirikoa egin da, Arartekoak administrazioon kopuru adierazgarri bati bidalitako galde-sorta batez baliatuz. Kapitulu honetan, informazio horren analititik ateratako datu nagusiak ematen dira. Zalantzarik gabe, haietatik zenbait hurbilketa garrantzitsu ondoriozta daitezke.

- Lagina osatzen duten administrazio publikoak edo sailak nolabaiteko tamainako erakundeak direla eta teknika-, finantza- eta kudeaketa-gaitasun handiagoak dauzkatela aintzat hartzen badugu, esan genezake Administrazio publikoaren egungo egoerak argi-ilun garrantzitsuak eta hobetzeko ibilbide nabariak dauzkala.
- Ildo berean, suma daiteke udalerrri txiki eta ertainetako batzuek egiturazko arazoak eduki ditzaketela administrazio elektroniko bikaina izate aldera behar

¹⁴ DATUAK BABESTEKO ESPAINIAKO BULEGOA, *Tecnologías y Protección de Datos en las Administraciones Públicas*, AEPD, Madril, 2020ko azaroa.

diren tresna guztiak eta ezinbestekoa den antolaketa- eta teknologia-arkitektura izateko.

- Administrazio elektronikoak lagineko erakunde publikoetan 2020ko urriaren 2an zuen ezarketa-maila ertaina dela esan daiteke, baina ezarketa desorekatua da eta, oro har, ez da desiragarria dena analizatutako erakunde publikoen laginean.
- Ezarketa ertaina egiturari, baliabideei eta pertsoneri dagokienez indartsuenak diren euskal administrazio publikoetan gertatzen da —oso datu esanguratsua da hori—, eta horrek pentsarazten du administrazio ertainetan eta txikietan, ziurrenik, ezarketa eskasagoa izango dela.
- Bereziki herritarren eta haien administrazioen arteko elkarrekintza elektronikoa erraztea edo hobetzea xede duten tresnak dira betetze-estandar txarrenak dauzkatenak. Horrelakoak dira, esate baterako, ahalordeen erregistroa eta gaitutako funtzionarioen erregistroa. Gauza bera esan daiteke artxibo elektronikoari buruz, zeina dokumentu-kudeaketa egokiaren funtsezko pieza den, baita herritarrak administrazioek badauzkaten dokumentuak aurkeztu beharretik salbuesten dituzten benetako elkarreragingarritasunari buruz ere. Tresnon indarraldia joan den apirilaren 2ra arte geroratu zenez, zentzuzkoa da eraginkortasuna lortzen azkenak izatea.
- Galde-sorta erantzun duten zenbait administraziok aitortzen dute ez daukatela espediente-kudeatzailerik; horrek izugarri zailtzen du administrazio-prozeduren tratamendu elektronikoa, zehazkiago espediente elektronikoa eta haietan jasotako dokumentazioarena.
- Administrazio elektronikoaren benetako ezarpenean egon diren atzerapenen arrazoiak oso desberdinak dira; izan ere, administrazio publiko batzuek maila altuagoko erabakiei (foru-aldundiei edo haien menpeko erakundeei) leporatzen dizkiete, eta beste batzuek, aldiz, kontratazio administratiboarekin zerikusia duten arazoei. Dena den, gehienak dira jakitun elkarreragingarritasun-gabezia dela administrazio elektronikoak bete-betean funtzionatu ezin izateko arrazoi nabariena.

Iruzkin orokor laburrok eman ostean, jarraian **ondorio nagusiak** aurkezten dira, galde-sortan jasotako galdera-motaren arabera egituratuta. Apartatu bakoitzean, gainera, sektore publikoaren bitarteko elektronikoaren bidezko jardunaren eta funtzionamenduaren erregelamenduak (administrazioei kontsulta egin eta gero onetsi baitzen) kontu horretarako xedatzen duenari buruzko iruzkin labur bat gehitu da.

1.- Egoitza elektronikoa

Kontsulta egin zaien administrazioen artean, egoitza elektronikoaren ezarketa-maila oso altua da, eta, beraz, eremu honetan ez da inolako arazorik planteatzen, oso kontu zehatzetan izan ezik. Hala ere, erabileraren intentsitatea ertaina edo baxua da administrazio publikoarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzera behartuta ez dauden pertsoneri dagokienez; horrek aditzera eman dezake oraindik badaudela izapideak bitarteko presentzialez edo paperean eta ez bitarteko telematikoz egin nahiago duten biztanleria-geruza zabalak. Horretarako arrazoi asko egon daitezke,

adibidez, bitarteko elektronikoekin ez fidatzea, administrazioen plataforma telematikoak oraindik oso intuitiboak eta atseginak ez izatea eta horrek ziurgabetasuna sortzea edo herritarrek ingurune teknologikoetaranzko trantsizioa egiteko eta egoitza elektronikoa erabiltzeko estimulu nahikorik ez ematea; izan ere, badirudi egoitza elektronikoa oraindik gune birtual iluna dela eta bulego tradizionalak eskaintzen duten benetako ikusgaitasunetik urrun dagoela. Egoera nabarmenki aldatzen da Administrazioarekiko harremanetan bide elektronikoak erabiltzera behartuta daudenen egoerari heltzen zaionean, horrelakoetan ez dagoelako aukera-eskubiderik. Lehenago adierazi den moduan, aukerakoa denean, hautabide elektronikoak indarra galtzen du.

Nolanahi ere, galde-sorta egin zen datak direla-eta, analisisian ez dira kontuan hartu sektore publikoaren bitarteko elektronikoaren bidezko jardunaren eta funtzionamenduaren erregelamenduaren 11. eta 12. artikuluetan egoitza elektronikoari buruz xedatzen diren eduki-eskakizun berriak.

2.- Erregistro elektronikoa

Erregistro elektronikoa orokorrari dagokionez ere, ezarketa-mailak oso altuak dira, nahiz eta kasu guztietara ez heldu; administrazio elektronikoaren teknologia-arkitekturaren elementu nagusi hori ia erabat ezarrita dagoelako seinale ona da, eta hori aurrerapena da berez. Aldi berean, aipatu behar da erregistro elektronikoek, kudeaketa digitaleko tresna gisa, azkenean funtzionamendu analogikoko eskema izapidetze elektronikora lekualdatu dutela, jauzi digitala aprobetxatuz beste era batera birkonfiguratu gabe. Hala ere, azpimarratzekoa da ezen, tresna horien hedadura gorabehera, Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzera behartuta ez daudenei erregistro elektronikoaren erabilerari eta egoitza elektronikoari buruzko informazioa eta laguntza emateko mekanismoak nagusiki telematikoak direla, nahiz eta kasu batzuetan, salbuespenez, telefonoz lagundu edo erregistroen arloko bulegoetan laguntza pertsonalizatuta eman. Datu horiek iradoki dezakete ez dela nahikoa inbertitzen arreta pertsonalizatuan eta laguntza presentzialeko zentroen sorketan, administrazio publikoekin bitarteko telematikoak komunikatzeko ez bitarteko edo baliabide teknologikorik ez gaitasun digital egokirik ez daukaten pertsonen edo taldeen laguntze aldera. Era berean, ez zaie laguntzarik ematen bitartekoak eduki arren haiek erabiltzeko ezagutza edo gaitasun nahikorik ez dutenei. Horregatik, Administrazio publikoarekiko harremanetan bitarteko digitalak erabiltzera arauz behartuta ez daudenek ez dituzte askotan erabiltzen, eta ez dirudi konstante hori denboraren poderioz murrizten ari denik. Urrats herabeak gorabehera, nolabaiteko geldialdi-egoera igartzen da.

Kasu honetan ere ezin izan dira aintzat hartu sektore publikoaren bitarteko elektronikoaren bidezko jardunaren eta funtzionamenduaren erregelamendu berrian, batez ere 37. artikuluan eta hurrengoetan, xedatutako eskakizunak, ezta 4. artikuluan zerbitzu elektronikoetarako sarbiderako laguntza-kanalei buruz ezarritakoa ere; hain zuzen, xedapen horietan, kanal presentziala, atariak edo egoitzak eta telefonoa ez ezik gizarte-sareak eta posta elektronikoa ere biltzen dira.

3.- Artxibo elektronikoa

Aurrekoak ez bezala, artxibo elektronikoa bakarria oraindik —inkestak egin zenean behintzat— ez dago ezarrita analizatutako lagineko administrazio publiko anitzetan, edo ezarketa-maila baxutzat edo ertaintzat jo daiteke. Kontuan izanik inkesta erantzun duten udalek, bi kasutan izan ezik, biztanle asko dauzkatela eta gainerako administrazio publikoak handiak direla, ez da oso datu pozgarria, balitekeelako udalerritxikiagoetan gabeziak handiagoak izatea. Azpimarratu behar da artxibo elektronikoa bakarria eduki gabe ezin dela dokumentu-kudeaketa egin eta, beraz, elkarreragingarritasuna (beste gauza batzuek gain) ezinezkoa bihurtzen dela. Puntu hau erabakigarria da herritarrek administrazio publikoari dagokionez irtenbide teknologikoei noizbait onura ateratzea nahi bada.

Azterlana egin den datagatik, kasu honetan ere ezin izan dira kontuan hartu sektore publikoaren bitarteko elektronikoen bidezko jardunaren eta funtzionamenduaren erregelamenduan jasotako eskakizunak, bereziki 54. eta 55. artikuluetan araututakoa.

4.- Ahalordeen erregistroa

Gauza bera gertatzen da ahalordedunen erregistroarekin, eta alderdi batzuetan larriagoa da. Dena den, ezin da jakin azken hilabeteetan ezarketan aurrerapenik egon den tresnaren gabezia agerikoa zen lekuetan, administrazio publiko batzuek tresna hori 2020an zehar ezartzeko helburua zeukatelako. Tresna hori gabe, elkarreragingarritasuna eta, horrenbestez, herritarrak erregistro jakin batean emandako ordezkariak telematikoa ezin dira abian jarri; beraz, herritarraren posizioa okerragotu egiten da, ordezkariak administrazio-maila guztietan berriro ere ziurtatu beharko lukeelako.

Era berean, 203/2021 Errege Dekretuak, bitarteko elektronikoei buruzko araudia onesten duenak, administrazio elektronikoen erreminta edo tresna teknologiko horren arauketa osagarri bat gehitzen du, hasiera batean Estatuko Administrazio Orokorrari bakarrik aplikatzekoa dena (33. artikulua), eta beste artikulua batzuetan (batez ere, 32. artikuluan eta hurrengoetan) ordezkarien egiaztapena aipatzen du. Jakina, arau-xedapen horiek ezin izan dira azterlan honetan jorratu, baina euskal administrazio publikoek bete beharko dituzte.

5.- Gaitutako funtzionarioen erregistroa

Aurrekoaren antzeko egoera bat ikusten da gaitutako funtzionarioen erregistroarekin edo sistema baliokidearekin, bereziki garrantzitsua baita Administrazioan identifikazio eta sinadura elektronikoa eskatzen duten izapideak egin behar dituzten eta egoki diren ziurtagiri elektronikoa edo identifikazio-bitartekoak ez dauzkaten herritarrentzat. Hartutako laginean, ezarketa oraindik ere oso baxua da. Egiatan, kasu askotan horrelako tresnarik sortu gabe egiten ari dira zeregin horiek. Administrazio-prozedura batean identifikazio eta sinadura elektronikorako gaikuntza horren bidez egiten diren

agintaritza-eginkizunak direla-eta, egokia deritzogu eginkizunok funtzionario-izaera daukaten enplegatu publikoek betetzea.

Kasu honetan ere ezin izan dira aintzat hartu sektore publikoaren bitarteko elektronikoen bidezko jardunaren eta funtzionamenduaren erregelamenduan gaitutako funtzionarioen erregistroari buruz jasotako eskakizunak.

6.- Ziurtagiri elektronikoak

Euskal administrazioek egokiro egin dute aurrera identifikazio eta sinadura elektronikoko mekanismoen sustapenean, [IZENPE](#)ren bidez, txartel propioen bidez eta are, zenbait kasutan, zerbitzu jakin batzuk atzitzeko identifikazio-sistema bigunen sustapenaren bidez. Hori oso positibotzat jotzen dugu. Hala ere, administrazioek IZENPEk jaulkitako txartelak edo ziurtagiri elektronikoak eskatu ohi dituzte, horiek baitaukate, zalantzarik gabe, segurtasunik handiena, konfiantzazko zerbitzu-emaile batek ematen dituelako, eta uzkurragoak agertzen dira edozein aukera malguagori dagokionez. Segurtasunaren eta konfiantzaren aldeko hautespen horrek kontrapuntu batzuk izan ditzake horrelako ziurtagiririk ez daukaten pertsonentzat, eta, irtenbide bigunagoak baimentzen ez badira, ondorio naturala da bitarteko elektronikoen erabilera nahi baino gutxiago sustatzea.

Puntu honetan ere, bitarteko elektronikoei buruzko erregelamenduak ezin du inola ere malgutu APELean diseinatutako eredu zurruna, gako itunduko sistemari eta aurretiazko baimenaren araubidearen beharrari dagokienez.

7.- Herritarrek administrazio digitalari ematen dioten erabilera

Administrazioarekiko harremanetan bide elektronikoak erabiltzera behartuta ez dauden herritar gutxi erabiltzen dituzte ziurtagiri elektronikoak izapideak digitalki egiteko; izan ere, lehenago esan den bezala, oraindik ere paperezko izapidetzea nahiago da, ez elektronikoa. Ikusi denez, joera hori oraindik oso nabarmena da eta aditzera ematen du aldaketa horrek beharbada denbora beharko duela erabilerak bide presentzialetik edo paperetik kanal birtualera edo digitalera migratzeko. Horretarako, administrazioek bulkada ausartak eman beharko dituzte. Iragate horretarako erresistentziak azaltzeko, besteak beste, arrazoi hau aipa liteke: euskarri fisikoa (papera) ukigarria da, eta, eskubideen erabilera, prestazioak, laguntzak edo ebazpenak jokoan daudenean, herritarrek haien bizitzarekin edo ondarearekin zerikusia duten alderdi garrantzitsuak jokatzen dituztenean, ezaguna dena eta norberaren esperientziak jada balidatu duena berria denari gailentzen zaio, batez ere bitarteko elektronikoak oraindik ez direnean atseginak eta erakargarriak, trantsizioa sustatzeko modukoak.

Bitarteko elektronikoei buruzko erregelamenduak, printzipio orokor gisa, erabilerraztasunarena eta pertsonalizazio eta proaktibitatearena sustatzen ditu. Era berean, hitzaurrean behin baino gehiagotan aipatzen du administrazio publikoek erraz erabiltzeko moduko zerbitzu digitalak bermatu behar dituztela, interesdunak

Administrazioarekin duen harremana erraza, intuitiboa eta eraginkorra izan dadin kanal elektronikoa erabiltzen denean. Asmo-deklarazio horiek administrazio publikoen jarduna inspiratu beharko lukete bitarteko elektronikoen bidezko herritarrekiko harremana antolatzean.

8.- Harremanetan bitarteko elektronikoa erabiltzeko betebeharra legez behartuta ez dauden subjektuengana hedatzea

Herritar askok Administrazioarekiko harremanetan bitarteko telematikoak erabiltzeko legezko betebeharra ez daukaten arren, zenbait administrazio-prozeduratan eta administrazio jakin batzuetan erabilera hori egiatan ezarriz joan da. Zalantzarik gabe, COVID-19aren etapan, jada ikusi den moduan, bide hori sustatu da, pandemiaren lehen zatian behintzat, eta kasu batzuetan ez da egon jardunbide horiek gaitzeko erregelamenduzko arau-oinarririk. Gauza bera gertatu da hautapen-prozesuetan eta dirulaguntzetan, bi kasuetan deialdiaren oinarrien edo dirulaguntzak arautzeko oinarrien bidez. Kasu bakoitzean analiza daiteke hori ezartzeko arau-oinarri egokirik badagoen, betebeharrak hori xedatzeko ezinbestekoa delako neurria arrazoitzen duen erregelamendu bat egotea. Era berean, analiza daiteke deialdiaren oinarriak edo enplegu publikoaren eskaintzei buruzko erabakiak kasu batzuetan eskakizun horiek ezartzeko tresna egokiak diren, erregelamenduzko arau-edukia eztabaidagarria denean (alkatetzaren edo gobernu-batzarraren ebazpenen bidez onesten direnean).

Oro har, euskal administrazio publikoek, eskuarki, ez dute erregelamenduak egiteko ahala erabili harremanetan bitarteko telematikoak erabiltzera behartuta egongo diren pertsonen perimetroa zabaltzeko, salbu eta inguruabar batzuk betetzen direnean eta talde-motaren arabera justifikatuta dagoenean, baina ezagutu dira araurako salbuespen batzuk. Dena den, behartutako pertsonen perimetroa zabaltzeko erabakiak, nolahi ere, arrazoituta egon eta neurritzkoa izan beharko luke eta ezin lekieke bereizketarik gabe ezarri izapideok bide telematikoz behar den segurtasunez egiteko baliabide teknologikorik edo oinarrizko gaitasun digitalik ez daukaten pertsoneri; aitzitik, kasu horretan ordezko baliabideak antolatu behar dira.

Bitarteko elektronikoei buruzko erregelamenduaren bidez, Estatuko Administrazio Orokorreko hautapen-prozesuetan parte hartzen dutenengana hedatu da harremanak bide elektronikoz egiteko betebeharra.

9.- Administrazio-jardun automatizatuak

Euskal administrazioetan, prozedura automatizatuak oso gutxitan erabiltzen dira, eta hori kontraesankor samarra da, zeren eta administrazio batzuetan teknologia disruptiboak (*big data*, *blockchaina*, etab.) erabiltzen hasten ari baitira zerbitzu jakin batzuk emateko zenbait datu-tratamendutarako. Administrazio-prozeduretan eta izapide jakin batzuen kudeaketan automatizatzeko edo adimen artifiziala erabiltzeko ildo batzuk arakatzen ari dira, baina, orain arte, laginean identifikatu diren ekimenak eskasak izan dira. Era berean, kontuan hartu behar da bitarteko elektronikoei buruzko erregelamendu berriaren zenbait pasartetan jardun automatizatuak buruz jasotzen diren aipamenek ez

diotela funtsean askorik gehitzen legegileak jada xedatu duenari. Hitzaurreak teknologia disruptiboetara eta haien arazoei buruzko ideia jasotzen du, baina erregelamenduaren artikuluetan ez da irismen handiagorik zehazten.

10.- Administrazio-prozedura elektronikoan erabilitako hizkuntza

Badirudi harreman elektronikoetan lehentasunezko hizkuntza, salbuespen puntual batzuetan izan ezik, gaztelania dela. Gaiari buruzko analisirik egin ezin dugun arren, arrazoi posible batzuk administrazio-hizkerari eta haren estandarizazioari lotuta egon daitezke. Hala ere, ezin da alde batera utzi balitekeela kultura juridikoan finkatuagoa dagoen administrazio-hizkera bat inguratzen duten segurtasun juridikoko alderdiek baldintzatzea euskarari horrelako izapideetan ematen zaion erabilera. Hori dela eta, herritarren eta Administrazioaren arteko harreman elektronikoetan euskararen erabilera erabakitaz bultzatzen duten politikak antolatu beharko lirarteke, administrazio euskara estandarizatua herritarrentzat irisgarria den hizkera batean sustatzen duten sistemen bidez, elektronikoki izapidetutako administrazio-prozeduretan hizkuntzaren erabilera bultzatzeko. [Azaroaren 19ko 179/2019 Dekretua, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa](#), lagungarria izan daiteke joera-aldaketa horretan, baina ezin da zalantzan jarri euskal administrazio publikoek pizteko eta sustatzeko neurri eraginkorrak ezarri behar dituztela.

11.- Idazkiak aurkezteko bitartekoak

Interesdunek modu presentzian aurkezten dituzte agiriak, erregistro-bulegoetan; gainerako bideak bigarren mailakoak dira, baina ikusi da Correoseko bulegoak askotan erabiltzen direla zenbait kasutan. Horrek agerian jartzen du, berriro ere, papera dela oraindik harremanetarako bitarteko nagusia Administrazio publikoetarako harremanetan bitarteko telematikoak erabiltzera behartuta ez dauden pertsonen artean. Kasu gehien-gehienetan, paperean aurkeztutako dokumentuak digitalizatu egiten ditu administrazioak, administrazio elektronikoaren betebeharra delako beren prozedurak eta espedienteak modu elektronikoan izapidetzea. Horrek administrazio-espediente elektronikoak egitea errazten du, kasu gehienetan garai analogikoaren berezkoagoak ziren aurretiazko prozeduren berringeriaritzarik egin ez den arren, administrazio-prozedurak formatu elektronikoetara eramateko besterik ez baita aurrera egin.

12.- Izapidetze elektronikorako eskuragarri dagoen informazioa

Administrazio-prozeduraren eta izapidetzeko tresna elektronikoaren erabileraren eremuan, informazio eskasa eta ez oso sistematizatua dago, kasu batzuetan webgune instituzionalean bertan, beste batzuetan modu telematikoan eta are gutxiagotan telefono bidezko arretarekin. Laguntza pertsonalizatuko kanalak ere (lehenago aipatu ditugu) ez dira ugariak.

Bitarteko elektronikoei buruzko erregelamenduak xedatzen dituen eta euskal administrazioek beren sistemetara eraman beharko dituzten berrikuntza bakarrak hauek dira: batetik, egoitza elektronikoan iradokizunak egiteko esteka bat eta erreklamazio-prozedura bat jarriko dira interesdunen eskura; eta, bestetik, ikusi den moduan, laguntza-kanalak zabalduko dira (4. artikulua).

13.- Euskadiko administrazio elektronikoen garapen-egoera

Euskal administrazio publikoak administrazio elektronikoko beren sistemen garapen teknologikoak bultzatzen ari dira eta, kasu batzuetan, herritarren karpeta eta zerbitzu publikoak emateko eta erabiltzeko txartelak ezarri dituzte; beraz, eremu horretan daukaten garapena ontzat jo daiteke, zenbait salbuespenekin. Kasu batzuetan, barne-garapen handia duten erakunde publikoak daude, baina gabezia endemikoak edo itzalgune nabariak ere aurkitu ditugu.

Bitarteko elektronikoei buruzko erregelamenduan, area pertsonalizatua eta herritarren karpeta ere aipatzen dira, baina Estatuko Administrazio Orokorrari aplikatuta nagusiki. Hala ere, 59. artikuluan, estatuko sektore publikoko herritarren karpetari atxikitzeo aukera ematen da.

14.- Prozeduraren epeak kontrolatzeko mekanismoak

Administrazio publiko anitzek prozedurak epe barruan ebazteko betebeharren segimendua egiteko eta abisuak bidaltzeko sistemak daukate, baina ez dakigu epeok ez betetzeak ondorioz badakarren ala ez. Hala ere, administrazio publiko batzuek —ez askok— oraindik ez dute ezarri espediente-kudeatzailerik, eta horrek praktikan eragozten du epeak betetzeko alerta-sistema bat edukitzea ebazpenik eza eta administrazioaren isiltasuna saihesteko, batez ere ezespenetan. Ez dago dudarik administrazio-izapidetzearen jarraipenerako, alertarako eta prozedurak epean ebazteko sistema horietan inbertitzea trazabilitatearen eta gardentasunaren alde egitea dela eta, beraz, abiapuntu egokia litzatekeela administrazio-izapidetzearen funtzionamendua herritarrei dagokienez hobetzeko. Gai hori osatzeko, bitarteko elektronikoei buruzko erregelamenduak 41. artikuluan eta hurrengoetan komunikazio eta jakinarazpen elektronikoei buruz ezartzen duena kontuan hartu behar da, batez ere ondorio juridikoei dagokienez (42. artikulua).

15.- Jakinarazpen elektronikoak

Jakinarazpenen esparruan, administrazio publiko gehienek legezkotasuna betetzen dute eta, horrenbestez, ezagutarazi dute jakinarazpen horiek egoitza elektronikoan sartzen dituztela (nahiz eta lagineko erakunde publikoen ehuneko jakin batek halakorik ez egin) eta herritarrek aukeratu dezakeela bitarteko telematikoak erabili ala jakinarazpenak paperean jaso arte itxaron. Nolanahi ere, herritarren oso ehuneko altu batek oraindik ere paperezko jakinarazpenak nahiago ditu, eta paperezko jakinarazpenak, esan den moduan, gehiago nabarmena dira. Horrek berriro agerian

jartzen du herritarrekiko harremanen digitalizazioa lortzetik oso urrun dagoela oraindik. Administrazio batzuek abisuak ematen dituzte egoitzaren bidezko jakinarazpenetarako sarbidearen bitartez harreman elektronikoa aktiba dadila sustatzeko.

16.- Administrazioak interesdunek lehenago aurkeztutako dokumentazioa eskatu ezin izatea

Interesdunak aurkeztu dituen eta Administrazioak badauzkan dokumentuak eskatzeari dagokionez, aurrerapen nabarmenak egin dira, baina ez kasu guztietan. Are gehiago, oro har ez dirudi Administrazio publikoak elkarreragingarritasun-sistemak erabiltzen dituenik beste administrazio batzuek dauzkaten dokumentuak eskuratzeko, eta horixe da herritarrei irtenbide hobek eskaintzeko eta Administrazioak badauzkan dokumentuak aurkezteak dakarren zama saihesteko arazoaren muintetako bat. Nolanahi ere, harrigarria da hainbeste administrazio publikok herritarrei agiriak eskatzen jarraitzea arauen arabera beharrezkoak ez direnean, eskuarki administraziook badauzkaten datuak direlako edo beraiek jardun arduratsuekin egiaztatu ditzaketelako, herritarrek dokumentazio edo informazio hori aurkeztu behar izan gabe.

Zalantzarik gabe, gai horretan oso garrantzitsua da bitarteko elektronikoei buruzko erregelamenduak 60. artikuluan (erregistroen interkonexio-sistema), 61. artikuluan (datu-transmisioak) eta 62. artikuluan (datu-bitartekaritzarako plataformak) jasotzen duen arauketa; izan ere, elkarreragingarritasunak eta, batez ere, administrazio publikoen arteko datu-transmisioak eta -bitartekaritzak hiru tresna edo mekanismo horiek hartuko dituzte oinarritzat herritarrek edo interesdunak zama jakin batzuetatik salbuesteko. Tresna horien funtzionamendu egokian oinarrituko da Administrazio elektronikoaren eta herritarrek eremu horietan dauzkaten eskubideen ereduaren eraginkortasuna.

17.- Kexak eta erreklamazioak

Administrazio elektronikoaren funtzionamendu akastunaren ondoriozko kexa eta erreklamazioei dagokienez, ikusi da kopurua txikia dela. Horrek aditzera eman lezake sistemak adinon dabilzala, nahiz eta gorabehera batzuk detektatu. Kexen aitorten soila lagungarria litzateke benetako arazo bat egon daitekeela identifikatzeko, Administrazio elektronikoko sistemak abian jartzeak batzuetan proba- eta errakuntza-saiakuntzak dakartzalako. Igarri egin da kexa- edo erreklamazio-sistema horiek ia beti telematikoak edo telefono bidezkoak izaten direla (eta askotan horietatik ez da frogarik ere geratzen) eta ez dela kexak aurkezteko zirkuitu presentzialik sortu, ezta erabiltzaile elektronikoaren defendatzailearen antzeko figurarik ere.

Puntu horretan, nabarmendu behar da bitarteko elektronikoei buruzko erregelamenduak ezartzen duela egoitza elektronikoen eremu horretan kexak egiteko prozedurak eta bide telematikoak jaso behar dituztela nahitaez (11.2 artikulua).

18.- Eskubide digitalen gutunak

Euskal administrazio publikoek, eskuarki, ez dute eskubide digitalen gutunik onartu; gehienez ere, zenbait kasutan zerbitzu-gutunetan, udal-ordenantzetan edo foru-erregelamenduetan biltzen dira eskubide horietako batzuk. Estatuko Administrazioak ere ez du halakorik onetsi. Dena den, *soft law* tresna horiek egiatan ez dira oso eraginkorrak bestelako tresna instituzionalak ere gehitzen ez badira, hala nola salaketak eta kexak aurkezteko kanal eraginkorrak, edo kexa horien jarraipen eraginkorra errazten duen eta herritarrei harreman elektronikoetan hautsitako eskubideak benetan konpontzen dituen organorik ez badago, kide anitzekoa zein indibiduala izan. Mekanismo eta tresna horiek benetan funtzionatzen dutenean lortuko da egiatan herritarrak horrelako transakzioekin fidatzea.

19.- Gardentasuna

Galde-sortan, halaber, azterlan honetan interes instrumentala duten beste alderdi batzuk aztertzen dira, esate baterako, xedapen orokorrak egiteko prozedurak, bitarteko elektronikoen bidezko partaidetza, gardentasuna eta datu irekiak. Horietatik hemen interesatzen zaigun bakarra zera azpimarratzea da: herritarrek beren eskubideak erabiltzeari eta herritarrek Administrazio publikoarekin bitarteko telematikoz dituzten harremanetan informatzetik eta parte hartzetik datorren hobekuntzari lotuta daudela.

Bitarteko elektronikoei buruzko erregelamenduak zenbait pasartetan aipatzen du gardentasuna, zeina zalantzarik gabe indartu egingo baita administrazio elektronikoa benetan ezartzen denean, horrela prozedura, informazio eta datu guztien trazabilitatea bermatuko delako.

20.- Teknologia disruptiboak eta herritarrak

Iraultza teknologikoari eta herritarrengan dituen ondorioei dagokienez, oraindik ere arazoari buruzko pertzepzio urria dagoela ikusi da. Badaude adibide batzuk, baina anekdotikoak dira. Agerikoa da teknologia disruptiboek euskal administrazio publikoetan oraindik eragin eskasa dutela administrazio-prozeduretan eta erakunde publikoetako izapidetzean eta kudeaketan aplikatzeari dagokionez. Hala ere, ezinbestekoa da aplikazioan behar diren berme guztiak ezartzea; izan ere, baliteke datu pertsonalen babeserako eta intimitate pertsonalerako eskubideak arriskuan jartzea, baita herritarren gainerako eskubideak eta askatasunak ere. Igarri egin da *big data* zerbitzu publiko jakin batzuk emateko izan ditzakeen aplikazioekiko sentsibilizazio handiagoa, baina ez dakigu goraka ari diren teknologia horiek sor ditzaketen arriskuak ezagutzen diren eta jakina den zein neurritan utz ditzaketen atzean talde jakin batzuk eta, hortaz, zein neurritan handitu dezaketen eten digitala, murriztu beharrean.

[Inkestako](#) item bakoitzari emandako erantzunei buruzko informazio zehatza, administrazioaren arabera xehatuta, honako epigrafe hauetan kontsulta daiteke.

[I. Sarrera](#)

[II. Inkestaren analisi empirikoa. Inkesta eta emaitzak](#)

[III. Analisi empirikoaren ondorio gisa](#)

AZTERLANAREN ONDORIOAK ETA ERATORRITAKO GOMENDIOAK

I. Herritarrek administrazio elektronikoaren ezarketan duten posizioaren analisia.

Lehenengoa.- Espainian, [ekainaren 22ko 11/2007 Legea, herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzkoa](#) (SELa), onartu zenean hasi zen taxutzen Administrazio elektronikoa. Hala ere, legearen aplikagarritasuna geroratu egin zen, hasieran aldi baterako eta gero, Estatuko Administrazio Orokorraz bestelako lurralde-administrazioei zegokienez, erakunde bakoitzaren aurrekontu-eskuragarritasunen menpe jarrita. 2008tik 2010era arteko krisiak herritarrei arreta telematika emate aldera eta, hala, pertsonen Administrazio publikoarekiko harremanetan bitarteko telematikoak erabiltzeko aitortu zitzaizen benetako eskubidea bermatze aldera beharrezkoak ziren baliabide teknologikoen, tresnen eta erreminten hedapena baldintzatu zuen. Nolanahi ere, SELaren orientazioa, eredu nagusitasuna herritarrei esleitzen baitzien, orain bultzatzen ari den trantsizio digitalaren olatu honetan berreskuratu beharko litzatekeen indar-idea da; izan ere, batik bat kontuan hartuta disrupzio teknologikoa bizkortzen hasi dela eta arrisku larria dagoela, ikusiko den moduan, herritarrak Administrazio elektronikoko sistemaren beste elementu bat edo adjektibo bat direla pentsatzeko, **nahiz eta herritarrek administrazio publikoekiko harremanei dagokienez dituzten bermeek eta posizioak zerbitzu publikoak emateko ereduaren erdigunea eta existentziaren zentzua izan beharko luketen, baita XXI. mendeko hirugarren hamarkadatik aurrera ere.**

Bigarrena.- Aitzitik, 2015eko administrazio-erreformak (urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena –APELa–, eta urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzkoa –SPAJLa–) honako honetan jarri zuen arreta nagusia: administrazio publikoak behartzea ordura arte lege-sistemak berak baimentzen zituen salbuespenengatik etengabe geroratuta geratu zen sistema bat ezartzera. Azterlan honetan egindako analisisan, ohartarazi da **administrazio elektronikoko lege-eredu berri horrek bigarren mailan uzten duela herritarrek ezarketa-prozesuan izan behar duten zeregina.** Horren ondorioz, Administrazio publikoaren alderdi endogenoa edo barne-alderdia eta haren arazoek konponketa gailendu ziren neurri handi batean aurreko eredu analogikoa jarauntsi zuen eta etenik gabe modalitate digitalizatu batera eraman zuen baina aritzeko forma eta modu tradizionalak gainjartzen zituen administrazio-prozeduraren ikuskeran. Hala ere, badirudi **ez dela behar bezalako arretarik jarri digitalizazio-testuinguruan; izan ere, herritarrek zeuzkaten baliabideak, bitartekoak eta gaitasunak oraindik ez ziren inola ere egokiak lehentasunez bitarteko digitalez bideratu nahi ziren harremanen esparru berriari erantzuteko.** Lege-joera hori neurri batean zuzendu da Gobernu zentralak azken bi urteetan egin dituen dokumentu batzuen bidez (azterlanaren epilogoan analizatuko dira) eta, hein batean, sektore publikoaren bitarteko elektronikoen bidezko jardunaren eta funtzionamenduaren erregelamendua onartzen duen martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuaren bidez, batez ere hitzaurrean; izan ere, digitalizazioak talde jakin batzuei arazoak sor diezazkiekeelako

pertzepzioa areagotu da, baina ez da arazuz proposatu arazook arintzeko irtenbide eraginkorrik, orain arte behintzat.

Hirugarrena.- Administrazio publikoa, oso ezarketa-erritmo desberdinekin bada ere, erabakitasunez pasatu da administrazio-prozedurako bere administrazio-jarduera garatzeko eta administrazio-espeditenteak izapidetzeko bitarteko telematikoak erabiltzera. Dena den, jarduketa duala sortu da, herritarrek dituzten bitarteko eta abilezia elektronikoa diferenteengatik, teknologien ezarketa-erritmo desberdinengatik eta, batez ere, indarreko legeriak aukera-eskubidea bermatzeagatik administrazio publikoekiko harremanetan bitarteko elektronikoa erabiltzera behartuta ez zeuden pertsona fisikoei. Aukera-eskubide horrek, hasiera batean, **herritarrek erakunde publikoekiko harremanetan bitarteko elektronikoa zein bitarteko analogikoa erabiltzeko eskubidea edukitzea** dakar, eta 203/2021 Errege Dekretuak berretsi egin du. Kontua da herritarren gehiengo nabarmenak harreman fisiko eta presentziala edo paperezko izapidetzea hautatzen jarraitzen duela administrazioarekiko harremanetan (egindako azterlan enpirikoaren emaitzetan argi eta garbi ikusi den moduan). Ziurrenik, arazoaren planteamendua okerra izan daiteke, edo baliteke ikuspegia behintzat zuzena ez izatea: hain zuzen ere, planteamendu dualistek presentzialitatea eta birtualitatea, arreta fisiko pertsonalizatua eta kanal telematikoen bidezko arreta eta are papera eta bitarteko elektronikoa kontrajartzen dituztenez, elkar bazterten duten harreman- edo arreta-modu edo -bitartekotzat jo dira, eta ez herritarren eta Administrazioaren arteko harremana hobetzeko elkar atzera elikatu beharko lukeen eredutzat, Administrazioaren bokazioa biztanleak zerbitzatzea da eta. Beraz, harremanetan jartzeko bi moduak ez lirateke kontrajarri behar eta ez litzateke esan behar bata bestea erabat ordeztzen duela; **hain zuzen, kanal presentziala eta elkarri fisikoki, ez bakarrik birtualki, eragiteko aukera beti irekita utzi behar da herritarren eta administrazioaren arteko harremanetan.**

Laugarrena.- Oinarrizko antolamendu juridikoan ez dago Administrazio publikoaren eta herritarren arteko harremanen sistema zehatz-mehatz definitzen duen legerik. Izan ere, indarreko esparru juridikoa (2015eko administrazio-erreforma) eraikitzeke, banatu egin dira Administrazioaren kanpo-alderdia izatea nahi dena (APELa) eta barrukoa izatea nahi den ikuspegia (SPAJLa), baina ez da arreta egokirik jarri — azterlan honetan modu puntualean analizatu diren alderdietan izan ezik— herritarrek harreman-sistema horretan duten posizioan. Egiatan, herritarrek duten posizio ahuldu hori estatuko lege baten bidez, Eusko Legebiltzarraren lege autonomiko baten bidez edo, bestela, foru-arauen zein udal-erregelamendu edo -ordenantzen bidez indartu beharko litzateke, **modu horretan Administrazioaren eta herritarren arteko harremanen sistema integral bat arautzeko, zeinak arazoaren ikuspen holistikoa biltzen duen eta harremanotan bai ikuspegi presentziala, bai digitala sistematikoki barne hartzen dituen**, herritarrak Administrazioaren funtsezko jardueraren aitzinaldean jartzeko eta kanal fisikoa eta birtuala barne hartzen dituen harreman-eredu dual horretan dituen eskubideak behar bezala kodifikatzeko, eredu hori badagoelako txertatuta administrazio publikoen jarduteko moduetan eta ez dirudielako atzera egin daitekeenik. Arau- eta erakunde-irtenbide horiek ere ez dira bete sektore publikoaren bitarteko elektronikoen bidezko jardunaren eta

funtzionamenduaren erregelamendu berriaren bidez; izan ere, printzipioen eta bitartekoen esparruan herritarrekiko nolabaiteko sentsibilizazioa islatzen duen arren, orobat egia da harreman telematikoetan bakarrik proiektatzen direla eta ez dela inola ere aipatzen arreta hori arreta fisiko edo presentzialarekin osatu behar denik. Horrenbestez, **ez da benetan antolatu herritarrei dagokienez harreman analogikoetatik digitaletarako trantsizio ordenatua egiteko modua, ezta trantsizio-prozesuan sortuko diren hutsuneak estaltzeko modua ere, inor atzean ez uzteko xedearekin.**

Bosgarrena.- Administrazio publikoa oso zorrotza izan da harekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzera behartuta dauden subjektuek bitarteko telematikoak bakarrik erabiltzeko arau-eskakizunak betetzeari dagokionez, batez ere izapideak eta epeak bide horretatik betetzean. Eskakizun horiek leundu egin ditu bitarteko elektronikoei buruzko erregelamendu berriak: adibidez, zehaztapen batzuk sartu dira Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzera behartuta dauden subjektuen prozedura-jarduketak konpontzeari buruz, APELaren 68.4 artikuluan modu anbiguoan idatzita zegoelako (erregelamenduaren 14. artikulua). Hala ere, zorrotasun hori ez da modu berean ikusten arauen hartzailea erakundea bera denean. Beraz, administrazio elektronikoko sistema integratu bat eraikitzearen xedeak ez du bakarrik jardun publikoaren eraginkortasuna, efizientzia edo ekonomia hobetzea izan behar, baizik eta zerbitzu digitalizatuen hartzaileak diren herritarrei zerbitzu hobek eta arinagoak ematea; hain zuzen, herritarrek ikusi beharko lukete haien posizioa hobetu egiten dela Administrazio publikoarekiko harreman presentzialei dagokienez, epeak erregularitasunez betetzen direla, Administrazioak badaukan dokumentazioa eskatzen ez diela edo, azken batean, haien zamak eta izapideak arintzen direla eta segurtasun juridiko handiagoa berenganatzen dutela. Bitarteko digitalak erabiltzean sortzen den etsipen-efektua argia da eta egitate honek egiaztatzen du: behartuta ez dauden subjektuen artean, erabilera oraindik ere noizbehinkakoa da, igaro diren urteak gorabehera. **Horregatik, komenigarria litzateke administrazio publikoek hausnarketa-prozesu sakona egitea harreman horren oinarriak kontzeptualki birplanteatzeko, herritarrekiko harremanen digitalizazioa areagotzeko erabakitasunez aurrera egin nahi bada.** Gauzen egungo egoera dela-eta, administrazio publikoek administrazio elektronikoen ezarketa eraginkor eta integraleko prozesua bizkortu behar dute, herritarrek barne-estimuluak eduki ditzaten bide presentzial edo fisikoan ez ezik bide telematikoan ere harremanetan jartzeko urratsa egiteko, beharrezko bermeak eta proportzionaltasun egokia edukiko dituztela jakinda. Dudarik gabe, gizartearen eta truke finantzario, komertzial eta ekonomikoen digitalizazio geldiezinak, zeina XXI. mendearen hirugarren hamarkada honetan gertatuko baita, prozesu hori bizkortu dezake, baldin eta Administrazioak elkarrekintza-sistema errazez, ez-neketsuez eta eraginkorrez sustatzen badu. Eta, batez ere, arreta nagusia pertsonengan jartzen duen arau- eta betearazpen-plan bat ezartzen badu, trantsizio-estrategia bat hartzen badu eta herritarrei laguntza, sustapena eta prestakuntza ematen badizkie, kanal presentzialetik digitalerako migrazioa eraginkorra izan dadin.

II. Administrazio elektronikoaren ezarketaren egoera. Herritarrentzako abantailak eta eragozpenak.

Seigarrena.- Herritarrentzat onuragarria izan daitekeen Administrazio elektronikoaren benetan ezartzeko prozesu baterako funtsezko oztopoa, 2021eko apirilaren 2ra arte, zera izan da: Administrazioaren digitalizazio-ereduaren aplikagarritasuna etengabe eta behin baino gehiagotan geroratu da azpiegitura teknologikoko erreminta edo tresna jakin batzuei (erregistro elektronikoko orokorrari, ahalordeen erregistroari, gaitutako funtzionarioen erregistroari eta artxibo elektronikoko bakarrari) dagokienez; baina, batez ere, administrazioen arteko elkarreragingarritasun-sistemaren ahuleziak oztopatu dute ezarketa. Hala ere, legearen erabateko aplikagarritasuna helduta eta sektore publikoaren bitarteko elektronikoaren bidezko jardunaren eta funtzionamenduaren erregelamendua onartu ostean, **2021eko apiriletik aurrera administrazio publiko guztiek eduki beharko dituzte lege- eta erregelamendu- eskakizun horietan ezarritako beharrezko azpiegitura teknologikoak, zeinak erakunde askok badauzkaten (ezarketa-maila desorekatuarekin bada ere):** sarbide-puntu nagusia, egoitza elektronikoaren, erregistro elektronikoko orokorra, ahalordeen erregistroa, gaitutako funtzionarioen erregistroa eta artxibo elektronikoa. Arazoa ez datza horretan bakarrik; aitzitik, adierazi den moduan, **tresna eta erreminta horiek guztiak administrazioen artean konektatzen dituen, informazioaren, dokumentazioaren eta datuen etengabeko eta elkarrekiko fluxua ahalbidetzen duen eta kostuak, errepikapenak, bikoiztasunak eta herritarrentzako zamak saihesten dituen elkarreragingarritasun-sistemaren hauskortasuna** da auzia. Teorian, edo behintzat formalki, eskakizun hori Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalaren aldaketetan (4/2010 Errege Dekretua) jasotako xedapenez ebatzita dago, baita bitarteko elektronikoei buruzko erregelamenduan bildutako bidez ere, 203/2021 Errege Dekretuan ezarri den bezala. Dena den, puntu horretan garapenak mugatuagoak dira, administrazio publiko ugariaren egiazko egoera edo egoera materiala (baita EAEn ere) arau-esparru horretan jasotako eskakizun guztiak bete ahal izateko urrun dagoelako oraindik. Lehenik eta behin, elkarreragingarritasunak benetan funtzionatzeko eta herritar guztiek (eta ez batzuek bakarrik) haren ondorioei onura atera ahal izateko, administrazio publikoek azaldutako azpiegitura teknologiko guzti-guztiak egokiro ezarrita eduki beharko lituzkete. Artxibo elektronikoko bakarra edo ahalordeen erregistroa eduki ezean, adibidez, erregistro elektronikoa eduki arren, elkarreragingarritasunak ezin du bete-betean funtzionatu, eta sistema horien interkonexiorik gabe ere ez. Bitarteko elektronikoei buruzko erregelamenduak, beste gauza batzuen artean, erregistroen interkonexio-sistema, datu-transmisioak eta datu-bitartekaritzarako plataformak arautu beharra azpimarratzen du. Baina irtenbide eta erreminta horiek guztiek behar bezala funtzionatu behar dute, eta aurreikus daiteke kasu askotan luze joko dutela, erabat funtzionatzeko behintzat. Hemen ere, arazoak trantsizioan planteatzen dira, xedapen batzuetan baino ez delako azaltzen Administrazio publikoak eman behar dituela erantzun egokiak (erregelamenduaren 61.2 artikulua) datu-transmisioa posiblea ez denean. Horrenbestez, datozen hilabeteetan ahalegin eskerga egin beharko da administrazio elektronikoaren jardunerako beharrezkoak diren tresna edo erreminta guztiak falta diren lekuetan

abian jartzeko, baina, batez ere, elkarreragingarritasunak dakarren guztian inbertitu beharko da. Hala ere, erabaki horiek, askotan, administrazio publikoen maila batzuetatik (adibidez, toki-administrazioetatik) kanpo geratzen dira eta gobernuaren foru-mailaren menpe egoten dira (eta han ikusten da lurralde bakoitzean Administrazio elektronikoaren antolaketa- eta erakunde-esparru hirukoitza dagoela), edo Autonomia Erkidegoaren menpe; **azken horrek tresnok homogeneousizatzeko edo, behintzat, harmonizatzeko prozesua bultzatu beharko luke, gobernu-maila guztien arteko elkarreragingarritasuna ahalbidetze aldera, herritarren beharrei hobeto erantzuteko eta euskal erakunde publiko guzti-guztiekiko harreman telematikoak sustatzeko.** Izan ere, Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalaren aldaketa eta sektore publikoaren bitarteko elektronikoaren bidezko jardunaren eta funtzionamenduaren erregelamenduaren onspena direla medio, eskakizun horien betetzea jada gerora ezina da.

Zazpigarrena.- Nolanahi ere, **jakitun izan behar dugu administrazio elektronikoa edo digitaleko sistema integral edo holistikoa ezartzeak epe ertain edo luzeko neurri batzuk dakartzala, zeinek harmoniaz konbinatu behar baitituzte alderdi teknologikoetarako ezinbesteko arreta, inbertsio finantzarioak (zeinak handiak izan baitaitezke), prozesuak (izapideak erraztea eta, horrela, zamak murriztea) eta antolaketa eta pertsonen kudeaketa berritzeko neurriak.** Gainera, kontuan hartu behar da administrazio digitaleko eredu berriak herritarrei emandako zerbitzuak hobetuz jarri behar duela arreta nagusia une oro. Izan ere, ondo planteaturiko sistema batek kudeaketa hobetu, herritarrei zerbitzu azkarragoak eta kalitate hobekoak eskaini, oztopo eta zama burokratikoak kendu (gauzak beste era batean eginez), antolaketan berritzeko palanka izan eta prozesuen kudeaketaren eta egituren arrazionalizazioan ondorio onuragarriak (arintasuna eta trazabilitatea) eduki beharko lituzke. Zalantzarik gabe, horrek, orobat, eragin saihetsezina dauka paperezko dokumentuak kudeatzeko edo izapidetzeko zereginak egiten dituzten lanpostuetan, gaitasuna altuagoko zeregin eta eginkizunetan aritzeko migratu beharko baitute, jakina, eta horretarako prestakuntza jaso beharko baitute alde aurretik. Era berean, gardentasuna eta, beraz, kontu-ematea areagotu beharko lituzke. Administrazio publikoak, eskuarki, gauza berberak egiten jarraitzen du, baina oraingoan ez bitarteko tradizionalerik, baliabide teknologikoz edo digitalez baizik. Dena den, badaude esperientzia batzuk nolabaiteko arrakasta izan dutenak kudeaketan hobekuntza puntualak sartzen, prozedurak eta izapideak errazten, administrazio-kargak murrizten eta emaitzak (eraginkortasuna) kostu txikiagoarekin (efizientzia) lortzen. Baina, gaur egun, oraindik ere badaude digitalizazioa eta sinplifikazioa errazteko beharrezko proiektuak, zeinak eremu zehatzetan bultzatzen diren (adibidez, herritarrentzako arreta-zerbitzuak, izapideei buruzko eskuliburuak, etab.) baina administrazio publiko batzuetara bakarrik heltzen diren. **Geure buruari galde diezaiokegu zein puntutaraino eragiten ari zaien benetan jarduketara-ildo hori herritarrei eta zein puntutaraino sustatzen ari den herritarrek harreman presentzial edo fisikotik harreman soilik birtual edo telematikora erabakitasunez migratzea.** Analizatutako inkestako datuek ez dute preseski bilakaera horrekiko baikortasuna pizten. Egia da, azterlanean analizatu den moduan, COVID-19aren krisiak joera horiek bizkortu

dituela eta, are, administrazio publiko batzuek herritarrak izapide jakin batzuetan harekiko harremanak egiatan bitarteko digitalez izatera bultzatu dituztela. Baina migrazio-prozesu horiekin batera ezinbestekoa da laguntzeko neurriak eta benetako erraztasunak txertatzea, eta une honetan ez da nahikorik ikusten.

Zortzigarrena.- Administrazio elektronikoaren aldeko argudio tradizionalak abantaila batzuk azpimarratu dituzte beti. Besteak beste, nabarmentzen zen Administrazioarekin etxetik jardutea edo harremanetan jartzea eroso dela, joan-etorriak egin eta itxaron behar ez delako, horrek kostuak aurrezten dituelako eta bulego birtuala eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan zabalik dagoelako, ohiko bulegoetako ordu-mugak eduki beharrean. Hori guztia egia bada ere, orobat egia da zenbait faktorek nabarmen baldintzatzen dutela: zein diren elkarri eragiteko gaitasun hori ahalbidetzen duten sistema teknologikoak, zein egoeratan dauden plataformak, zein erraztasun edo zailtasun dauden erabileran, zer-nolako ezagutzak eskatzen diren maneiatzeko eta zein baliabide (nabigatzaileak, Internet konexioak, etab.) dauden eskuragarri izapide horiek egiteko. Zenbait egilek hala adierazi dute. Adibidez, Javier Rodríguez Zapaterok objektzio hau egin zion duela gutxi Administrazio publikoari: **“Disponemos de muchos servicios digitalizados, es verdad, pero en muchos de ellos la usabilidad no es la mejor. Hay trámites que siguen siendo tediosos, complejos, poco intuitivos, en especial para personas no avezadas o formadas en tecnología, así como para los más mayores”**^{15, 16}. Errealitate eztabaida ezin horrez gain, arazoak orobat sortu dira herritarrak ez daudelako Administrazio publiko bakar batekin harremanetan; aitzitik, beren beharren, egin behar dituzten izapideen eta, bereziki, erakunde publikoen eskumenen arabera, batzuetan administrazio bereko zenbait arloekin edo zenbait administrazioekin jarri behar dute harremanetan, kasuan-kasuan. Horrek herritarren elkarrekintza zailtzen du, zeina gaur egun funtsean alde bikoia den, nahiz eta erregistro elektroniko bidez kasu batzuetan beste administrazio batzuetara zuzendutako idazkiak, agiriak, eskaerak edo errekursoak izapidetu daitezkeen, hori beti posible ez den arren. Beraz, herritarrentzako abantailak, kasu batzuetan, oztopo birtual bihurtzen dira eta haien interes legitimoetarako beharrezkoak diren izapideak egiteko administrazio horietara jo ezin izatea dakarte, batez ere sistema telematikoak behar bezala ezarrita ez daudenean, hutsegiteak dituztenean edo kudeaketa asko egiteko berariazko zailtasunak dauzkatenean, bereziki sistemen elkarreragingarritasuna bermatuta ez dagoenean.

Bederatzigarrena. Herritarrak dagokion Administrazioarekin harreman presentziala edo fisikoa (paper bidez) ala elektronikoa izatea aukeratzeko eskubideak, indarreko arau-esparruak aitortzen baitu, tentsio dikotomikoa sortu du, batik bat Administrazioa bere barne-erabileran espediente guztiak modu elektronikoan izapidetzera behartuta dagoelako eta horregatik, antza, harreman presentziala edo paperezkoa aukeratzeak haren eguneroko zereginak desitxuratzen dituelako.

¹⁵ Zerbitzu digitalizatu asko dauzkagu, egia da, baina horietako askotan erabilgarritasuna ez da onena. Badaude oraindik ere gogaikarriak, konplexuak, ez oso intuitiboak diren izapideak, batez ere teknologian trebeak ez diren edo prestakuntzarik jaso ez duten pertsonentzat, baita adinekoentzat ere.

¹⁶ RODRÍGUEZ ZAPATERO, Javier, *Por una España Digita. Una hoja de ruta para que Estado y empresas den el salto a la economía digital*, Ediciones Deusto, Bartzelona, 2020, 98. or.

Beharbada, arazoa txarto planteatuta dago: Administrazio publikoak, nahi diren arintasunaren, ekonomiaren eta eraginkortasunaren mesedetan, ezin du eskatu herritarrek harekiko harremanetan bide telematikoak soil-soilik erabil ditzatela; aitzitik, ahalegina egin behar du herritarren eskubideak edo itxaropenak inola ere ez hondatzeko, Administrazioarekiko harremanetan edozein bitarteko erabiltzen dutela ere. Hori egiteko modu efizienteena eta bidezkoena zera da: eskura dituen bitarteko eta baliabide guztiak erabiltzea trantsizio digitala borondatez egin nahi duten pertsonen prozesua errazteko. Horrek plangintza estrategikoa egitea eta sustapen- eta laguntza-neurriak ugaritzea eskatzen du. Egia da oraindik ez dirudiela estrategia hori azken hilabeteetan argitaratu diren digitalizazio-planetan dagoenik; izan ere, horietan askotan azpimarratzen dira eten digitala eta hura gainditzeko beharra, baina ez da igartzen migrazioa berme guztiekin eta herritarrek beren eskubideak gauzatzean batere sufritu gabe egiteko beharrezkoak diren trantsizio- eta laguntza-neurriak hartu direnik. Herritarrei laguntza bide telematikoz bakarrik (*chatboten* edo laguntzaile birtualen bitartez) ematearen alde egitea ez da irtenbide unibertsala, batez ere pertsona askok oraindik ez dutenean ez baliabide teknologikorik ez gaitasun digitalik. Lagungarria izan liteke identifikazio eta sinadura elektronikoko sistemak, eskakizun bigunekoak edo gako itundukoak, malgutzeko edo errazteko neurriak bultzatzea, baita administrazioek *app* jakin batzuk erabiltzea ere, harreman elektronikokoak eta zerbitzu publikoetarako sarbidea hobetzeko asmoz.

Nolanahi ere, botere publikoek jakitun izan behar dute ez dagoela herritarrei telefono adimendunak eduki beharra ezartzen dien edo Administrazioarekiko harremanetan horrelako telefonoei eman behar dieten erabilera zehazten duen legezko betebeharririk, ez zuzenekorik, ez zeharkakorik. Pandemiako txertaketa-prozesu masiboak ere bide horretan egin dira eta, hala, herritarrak izapide elektronikoko hori egitera edo kudeaketa horietarako laguntza puntualak eskatzera behartuta egon dira.

III. Kalteberatasun digitaleko egoeran dauden pertsonak, COVID-19aren krisian arreta berezia jarrita.

Hamargarrena.- Benetako arazoak are gordinagoak dira talde edo pertsona kalteberentzat edo askotariko inguruabarrak direla medio kalteberak izan daitezkeen pertsonentzat, administrazio publikoekiko harremanetan bitarteko telematikoak erabiltzeko beharrezkoak diren baliabide teknologikoak edo oinarritzko gaitasun digitalak eduki ezin izateari dagokionez. Eten digitala konstantea izan da Administrazio elektronikoa lehen urratsak egiten hasi eta abian jarri zenetik, azterlan honetan zehar egiaztatu den moduan. Inklusio digitalaren aldeko bataila ere etengabe gogorarazi da kohesio sozialaren eta talde jakin batzuen integrazioaren oinarrietako bat delakoan, eta gaur egun Agenda 2030en leman gogorarazten da: "inor atzean ez uztea". Hala ere, administrazio elektronikoa indar handiagoz ezarri ahala, ikusi zen talde jakin batzuk (adineko pertsonak, guraso bakarreko familiak, baliabiderik gabeko edo errenta-maila baxuko pertsonak, ingurune jakin batzuetako adingabeak, arrazoizko Internet konexiorik gabeko landa-biztanleak, baliabiderik gabeko iraupen luzeko langabeak, desgaitasuna duten pertsonak, baliabiderik gabeko

emakumeak edo lan prekarioak dituztenak, genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeak, etab.) atzean geratuz zihoazela eta ezin ziotela digitalizazioaren erritmoari jarraitu, zeina hasieran bizia baitzen, baina artean ez disruptiboa. Gaingiroki deskribatu den fenomenoaren errealitatea ukazina den arren, aitortu daiteke administrazio publikoek orain arte ez dutela neurri nahikorik hartu pertsona horiek digitalki barne hartzeko eta administrazioekiko harremanetan beren eskubideak eta prestazioak erabiltzean zuzenean edo zeharka kalterik ez egiteko. Eremu horretan lan eskerga dago egiteke, kontuan hartuta **egoera objektiboak, Estatu osoko datuak erabiltzen baditugu, agerrarazten duela hogeit hamar milioi pertsonak, ez gehiagok, ez gutxiagok, oraindik ere ez daukatela oinarrizko gaitasun digitalik; horrek, nolana ere, Administrazio publikoarekiko edozein harreman bide telematikoz soilik egitea eragozten die** ([Gaitasun Digitalen Plan Nazionala, 2021eko urtarrila](#)). Euskadiko egoerari dagokionez, Euskal Estatistika Erakundearen arabera, EUSTATEk 2020ko udazkenean Euskadiko familiei informazioaren gizarteari buruz egindako inkestan dioenez, 65 urte eta gehiago dauzkaten pertsonen % 42k bakarrik erabiltzen dute Internet, eta inaktiboak eta langabeak artean, berriz, portzentajea % 60 da. Biztanleria orokorrari dagokionez, 16 eta 74 urte bitarteko adina duten eta Internet konexioa daukaten %50ek bakarrik erabili dute konexioa 2020an administrazioekin komunikatzeko.

Sektore publikoaren bitarteko elektronikoaren bidezko jardunaren eta funtzionamenduaren erregelamenduak ez du errealitate hori ia kontuan hartu; izan ere, bidenabar soilik aipatzen ditu, pasarte batzuetan, digitalizazioarekiko kalteberak diren taldeen esparruan koka daitezkeen egoerak, adibidez, irisgarritasun-printzipioa aipatzean (erabiltzaileen sarbidean berdintasuna bermatzea eta ez diskriminatzea berariaz aipatzen baitu, bereziki desgaitasuna duten pertsonen eta adinekoei dagokienez) eta neutraltasun teknologikoaren eta egokigarritasunaren printzipioa jorratzean (erregelamenduaren 2. artikulua).

Hamaikagarrena.- Herritar batzuk Administrazio elektronikoarekiko dauden ahultasun-egoerak askoz ere kutsu larriagoak hartu ditu COVID-19aren krisia gure artean zabaldu ahala. Erakunde honen 4/2020 Gomendio Orokorrean xehe-xehe azaldu zen moduan, pandemian zehar, batez ere aldi gorenean, hots, 2020ko martxotik maiatzera arte, hau da, **lehen alarma-egoeran eta haren hurrengo luzapenetan, administrazio publikoak hein batean itxi zirenez, funtsezkotzat jo ziren zerbitzuak izan ezik, herritarrek administrazio publikoekiko harremanetan ia soilik bitarteko telematikoak erabili behar izan zituzten edo, bestela, telefono bidezko kanalaz baliatu**, eta, bere garaian agerian jarri zen moduan, hori ez zen ondo ibili kasu guztietan. Beraz, salbuespeneko inguruabarren ondorioz, benetako betebeharrak ezarri zen, zeinaren arabera Administrazio publikoekin harremanetan jartzean aukera-eskubidea ezabatu egin baitzen eta egiatan harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzeko betebeharrak ezarri baiten. Horrek desparekotasun-egoerak ekarri zituen herritarrek zeuzkaten baliabide teknologikoaren eta gaitasun digitalen arabera eta ondorio latzak izan zituen administrazio-jardunaren zenbait eremutan, adibidez, laguntzak, dirulaguntzak nahiz eskaerak izapidetzean eta informazio publikoa eskatzean. Administrazio publikoak, salbuespen bakanekin (adibidez,

gizarte-zerbitzu jakin batzuetan), herritarrentzako arreta eskasa eskaini zuen kasu horietan, eta nagusiki talde kalteberek eta baliabiderik gabeko pertsonak pairatu zuten hori.

Pandemiak ordua eskatzeko sistemak orokortu, eta arreta-falta eta desparekotasun-egoerak sortu ditu; horrelakoak zuzendu behar dira, lehenago aipaturiko gomendio orokorrean adierazi zen moduan.

Bereziki arazotsua da ordua eskatzea ezinbestekoa denean erregistro-bulegoetara joateko. Kontuan hartu behar da erregistroa administrazio-prozeduran sartzeko atea dela eta hura ixteak, arrazoiak edozein direla ere, sartzea galarazten duela eta kalte konponezinak sor diezazkiekeela herritarrei edo interesdunei.

Hortaz, erakunde honek bere garaian egin zituen gomendioek erabat indarrean diraute, jokabide desegoki batzuk azkenean administrazio-jardunean txertatu direlako. **Ildo horretan, garrantzitsua da telefono bidezko arretaren funtzionamenduaren eta ordua eskatzeko sistemen hedapenaren jarraipena egitea, batez ere erregistro orokorrean eta prestazio batzuk** (epeak bete behar dituzten pentsioak, laguntzak, dirulaguntzak, etab.) **izapidetzeko aurretiazko informazioa eskatzeko eremuan**; izan ere, esleipen-sistema txar batek, hain zuzen, eskaera aurkezteko epea amaitzea eta ondorioz eskubideak galtzea, ondarea gutxitzea edo legez egokitzen diren prestazioak ez eskuratzea ekar dezake.

IV.Ordua eskatzeko sistema behar bezala arautu eta antolatu beharra.

Hamabigarrena: Administrazio publikoetan arreta jasotzeko modu bakarra, egon daitezkeen premia-egoerak kontuan hartu gabe, ordua bide telematikoz eskatzea izatea berez eztabaidagarria da. Antolaketari, zerbitzua modu efizientean emateari edo segurtasunari lotutako arrazoiak direla medio ordua eskatzeko sistema hori ezarri behar bada, modalitate hori arauz gaitu beharko litzateke eta ordua lortzeko ordeko zenbait kanal eraginkor xedatu beharko lirateke (telefono bidezkoak, zenbakizkoak, telematikoak edo bestelako bitarteko objektibo unibertsalak, baita presentzialak ere). Halaber, salbuespenetarako ordu-tarteak ezarri beharko lirateke epea egunean bertan edo biharamunean amaitzen zaien gaiak izapidetzeko. Horrek modu argi eta erabakitzailean eskatzen du ordua eskatzeko sistema bat ezartzen duten administrazio publikoek, batez ere administrazio-erregistroari eragiten dionean (elektronikoa izan zein erregistroen arloko laguntza-bulegoetan egin), mekanismoak antola ditzatela herritarren eskubideei edo itzaropenei inolako kalterik ez egiteko. Horrek berriazko arau-erregulazioak xedatzea ekarri behar du, legeen, foru-arauen zein tokiko erregelamenduak egiteko ahalaren adierazpenen bidez, ordua eskatu behar den kasuetan herritarrentzako berme-sistema bat ezartze aldera. Paradoxikoki, martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuak, sektore publikoaren bitarteko elektronikoen bidezko jardunaren eta funtzionamenduaren erregelamendua onartzen duenak, ez du ezer arautzen ordua eskatzeari buruz, baina, administrazio-prozedurako epeak zenbatzeari dagokionez salbuespenak ezarri nahi izanez gero, xedapen horiek lege batean bildu beharko lirateke.

V. Herritarrei laguntzeko eta administrazio-prozeduraren kudeaketaren arduradunak identifikatzeko neurriak

Hamahirugarrena.- **Administrazio publikoek intentsiboki inbertitu beharko lukete Administrazio elektronikoaren arloan herritarrei laguntza eta babesa emateko sistemen ezarketan;** sistemok laguntza pertsonalizatua eman behar dute, erabiltzaileei tutoretza eta eskarietarako laguntza ematen dizkieten funtzionarioen edo teknikarien bitartez, erabilera orokorturako egokiak diren bitarteko teknologikoekin zerbitzu telematikoen erabiltzaileei arreta emateko zentro fisikoak sortuz, eta ez dute laguntza telematikoa, telefono bidezkoa edo laguntzaile birtualen bidezkoa bakarrik eskaini behar.

Badirudi bitarteko elektronikoei buruzko erregelamendu berriak urrats herabeak egin nahi dituela norabide horretan, herritarrek zerbitzu elektronikoetarako sarbidea edukitzeko laguntza-kanalak jasotzen dituen katalogoa zabaltzen duelako (4. artikulua); bertan, berariaz jasotzen da kanal “presentziala, zehazten diren laguntza-bulegoen bidez”. Manu horren interpretazio zuzen batek ekarriko luke **administrazio publikoek herritarrei laguntzeko bulegoak ezartzea (erregistroen arloko laguntza-bulegoez haraindi), herritarren behar telematikoei modu presentzialean erantzuteko.** Hala ere, arauketa hori adierazgarria eta ez-nahitaezkoa denez, erakunde publikoek laguntza horretarako ordezeko bitartekoak (hala nola kanal elektronikoak) proposa ditzakete, eta horrelakoak beti dira urrunagoak.

Era berean, kexak edo erreklamazioak aurkezteko kanal eraginkorrak antolatu behar dira, herritarrek eta interesdunak babesteko bermeak dauzkatena. Erakunde honek administrazio publikoei gomendatzen die prebentziorako eta herritarrei laguntzeko sistema horiek indartu ditzatela, sistemoi dagokienez dituzten ahalmenak eta funtzionamendua arautu ditzatela eta herritarrek harremanetan bitarteko telematikoak erabiltzen dituen Administrazioarekiko duen posizioa sendotu dezatela.

Hamalagarrena. **Ezinbestekoa da administrazio publiko guztiak beren informazio- edo prozedura-jardunak kudeatzeko sistemaz hornitzea; horien bitartez,** informazio- edo laguntza-unitateetan agintzen duten eta herritarrei eragiten dieten gai edo prozedura guztiak zuzentzeko eta izapidetzeko eskumena daukaten **arduradunak une oro identifikatu behar dira,** zuzendariak, funtzionarioak zein enplegatu publikoak izan. Modu horretan, herritarrentzako arreta hobetuko litzateke eta herritar guztiek zerbitzuen arduradunak eta administrazio-prozeduretako izapide jakinak egiten dituzten pertsonak erabat identifikatzeko daukaten eskubidea (APELaren 53 b) artikulua) eraginkorra egingo litzateke. Administrazio elektronikoak izugarri errazten du prozeduren trazabilitatea; horri esker, herritarrek ados ez badaude norengana jo behar duten jakin dezakete, eta hori bat dator une oro egokiak diren erantzukizunak eskatu ahal izateko xedearekin, zeina araudian ezarrita dagoen. Modu horretan, herritarrek beren solaskidea edo beren espedientearen arduraduna ez identifikatzeagatik sortzen diren blokeo-egoerak saihestuko lirateke. Horretarako, euskal administrazio publiko guztiei gomendatzen zaie prozedura telematikoen

trazabilitatea ziurta dezatela, administrazio-prozeduren edo prozedurak banatu daitezkeen izapideen zein eragiketen arduraduna edo arduradunak identifikatzeko sistema automatikoen bidez, alderdi teknologikoari edo zerbitzu informatikoari dagozkionak barne.

VI. Zerbitzu elektronikoak erabiltzen dituzten herritarren eskubideak defendatzeko tresnak eta erakundeak

Hamabosgarrena. Herritarren eta Administrazio publikoaren arteko harremanen egungo sistemaren alderdi telematikoan, igarri da administrazio elektronikoari buruzko 2007ko legeak xedatzen duen figura, “zerbitzu elektronikoaren erabiltzailearen defendatzaile” zeritzona, falta dela, nahiz eta kasu hartan Estatuko Administrazio Orokorrerako bakarrik xedatuta zegoen (eta ez zen orokortu). 2015eko erreformak, orientazio nabarmenki teknologikoan oinarritu zenez, xedapen horiek indargabetu zituen eta ez zuen antzeko ezer sartu bere artikuluetan.

Sektore publikoaren bitarteko elektronikoaren bidezko jardunaren eta funtzionamenduaren erregelamendu berriak ere ez du gabezia hori konpondu, eskakizun puntual batzuk besterik ez baititu sartu, hala nola egoitza elektronikoen besteak beste honako hauek ezarri beharko dituztela: “kasuan-kasuan eskudunak diren organoetan iradokizunak eta kexak aurkezteko esteka bat” eta “sektore publikoko webguneen eta aplikazio mugikorren irisgarritasun-betekizunei dagokienez ezarritako erreklamazio-prozedurarako eta komunikaziorako mekanismoak” (11.2 artikulua).

Araudi komunean horrelako xedapenik ez egoteak ez du oztopatzen lege autonomikoek edo erakunde publiko bakoitzaren administrazio elektronikoari buruzko araudi egokiak figura osagarriak sortzea, zeinek kexak edo erreklamazioak bideratu eta herritarrekiko harreman telematikoetan igarritako arazoak konpontzeko jardun dezaketen. Figura posible horiek independentzia edo autonomia funtzionaleko izaera eduki beharko lukete, kasuan kasuko Administrazioaren lerro hierarkikotik kanpo, datuak babesteko ordezkariaren figurak egun daukan izaeraren antzera (edo, are, eginkizunok organo horri dagozkionei gehitu lekizkieke).

Hori guztia, Arartekoak egiten duen eta herritarrek jarritako kexei erantzunez betetzen duen kontrol-lan orokorra alde batera utzi gabe (aipaturiko gomendio orokorra horren adibide ona da). Herritarrek beti daukate zabalik Ararteko erakundera jotzeko bidea. Horretarako, pandemia-aldian askotan eta lehenago ere (nahiz eta ez hainbeste) egin den moduan, egokiak diren kexak aurkeztu ditzakete zerbitzu publikoek alderdi telematikoan izan duten funtzionamendu desegokiari buruz. Ez da alferrikakoa gogoraraztea erakunde hau dela bitarteko elektronikoaren erabilerari buruzko edo Administrazio publikoarekiko harreman telematikoaren ondoriozko diskriminazio, desabantaila edo beste edozein arazori buruzko kexak izapidetzeko legez xedatutako bitartekoa.

Hamaseigarrena.- Era berean, oso garrantzitsua da, oinarrizko legeriak herritarren eta interesdunen katalogo bana jasotzeaz eta bertan administrazio elektronikoari zuzenean lotuta dauden kontu anitz islatzeaz gain, **legeria autonomikoak eta hura garatzeko araudiak azpimarratzea herritarrek Administrazio publikoarekiko harremanei dagokienez dauzkaten eskubide digitalak indartu behar direla.** Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzekoak, eskubide digitalen bermeei buruzko berariazko titulu bat jaso zuen, baina harreman horrek ezinbesteko osagarria jaso behar du herritarren eta Administrazioaren arteko harremanei dagokienez; izan ere, harreman-modalitate horrek datozen urteetan modu esponontzialean hazteko joera natural eta saihetsezina dauka eta nolana ere babestu behar dira pertsona eta talde kalteberen eskubideak eta botere publikoekin horrelako harreman telematikoak izateko aldi baterako zein egituraz benetako zailtasunak dauzkatenen eskubideak, askotan haien menpe egoten direlako oinarrizko eskubideen erabilera edo funtsezko prestazio nahiz laguntzetarako sarbidea. Hortaz, kontua ez da bakarrik eskubide digitalen zerrendak biltzea, hori ere egin behar den arren (eta *eskubide digitalen gutunen* bitartez, zeinak nagusiki *soft law* tresnak baitira, egiten hasten ari da); aitzitik, ahal den neurrian, aurrerapausoa litzateke eskubide-gutun horiek pixkanaka arau moduan baliozkotzea eta, hortaz, eraginkortasun juridikoa lortzea, herritarrek administrazio digitalarekiko duten posizioa, gaur egun ahulduta baitago, bermatu ahal izateko. Esan beharrik ez, **bide horren xedea ez da bakarrik eskubideak bermatzea, baizik eta batez ere horrelako harreman telematikoak segurtasun juridikoko ingurune batez hornitzea; izan ere, hura hazi ahala, erabilera dudarik gabe areagotuko da, eta horrela digitalizazio eraginkorragoa eta inklusiboagoa erdietsiko da.** Oraingoan ere, nahiz eta administrazio elektronikoaren jardunaren eta funtzionamenduaren erregelamenduak printzipio orokor anitz jaso (hala nola irisgarritasun-printzipioa, erabilerraztasunarena, elkarreragingarritasunarena eta pertsonalizazio eta proaktibitatearena, besteak beste —2. artikulua—), horrek ez du konpontzen erabiltzaileei edo herritarrei APELaren 13. eta 53. artikuluetan ezarritako eskubideak zehazten eta xehatzen dituen eskubide-sorta bat eskaintzen dien esparru juridiko bat benetan antolatzeko beharra.

VII. Oraingo eta etorkizuneko eten digitala lehengoratzeko ekintzak

Hamazazpigarrena.- Herritarren eskubideak nolana ere errespetatu behar dira, Administrazio publikoarekiko harremana presentziala zein telematiko izan. Izan ere, herritarren eskubideek Administrazioarekin harremanetan jartzeko bitartekoa edozein dela ere bermatuta egon beharko lukete, baina, **bitarteko elektronikoak erabiliz gero, berme horiek indartu behar dira, egoitza elektronikorako, prozedura jakin baterako edo prozedurako edozein inguruabarretarako sarbidea lortzeko ezintasunak batzuetan dakartzan zailtasunengatik,** batez ere kontuan izanik askotan arazo teknikoak egoten direla Administrazioaren ondorioz edo herritarren eta interesdunen eskuragarritasun eta bitarteko teknologikoen ondorioz; beraz, beti egon behar du ordezeko kanal bat (telefono bidezkoa, posta elektronikoaren bidezkoa edo presentziala) gorabehera horiek jasota geratzeko eta haien eskubideei kalterik ez egiteko. Harreman elektronikoan, pantaila hotz baten bitartez bideratzen denez, herritarrak edo interesdunak konpontzen ez dakien egoera konplexuak sor daitezke, zenbaitetan

plataforma edo programa konplexua izateagatik, bertsio jakin bateko nabigatzaile zehatzak (batzuetan eguneratuak eta beste batzuetan eguneratu gabeak) eskatzeagatik, inprimaki elektronikoak idazteagatik edo proposatutako eredu digitala oso intuitiboa ez izateagatik. Eta horrek estresa eta antsietatea sortzen dizkio interesdunari, batik bat bere bizitzan edo bere familiarenean funtsezkoak edo garrantzitsuak izan daitezkeen prozedurak izapidetzen ari denean. Horrenbestez, edozein laguntza eskertzekoa da inguruabar horietan. Presentzialitatearen eta birtualitatearen arteko dikotomia, harreman-mundu fisikoaren eta telematikoen artean planteatzen dena, ezin da finkatu elkarrekin konektatuta ez dauden eredu paraleloak balira bezala. Administrazioak bermatu beharko luke prozedura-dikotomia horrek ekonomia- edo sarbide-desparekotasunik sortzen ez duela, COVID-19aren etapan sortu duen moduan. Halaber, neurri aringarri guztiak hartu beharko lirateke harreman telematikoa zabaldu edo unibertsalizatu nahi denean, betiere arreta presentziala eta telematikoa konbinatuz, biek osatzen dutelako herritarrei zerbitzuak emateko eredu holistikoa.

Hamazortzigarrena.- Egungo oinarrizko araudiak Administrazio publikoarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzera behartuta dauden subjektu batzuk definitzen ditu, baita pertsona fisikoak ere, nortasun juridikorik gabeko entitateak barne. Horrelako kasuetan, legeak finkatzen du zein subjektu dauden behartuta harreman-mota hori izatera, baina onartzen du (APELaren 14.3 art.) erregelamenduz beste pertsona fisikoak ere behartu daitezkeela legean aipaturiko inguruabar zehatzak betetzen badira, “edo bestelako arrazoiengatik” klausula orokorra txertatuz. Hain klausula irekiarekin, administrazio publikoek pertsona fisikoen talde jakin batzuei ere eska liezaiekete gero eta harreman elektronikoa eskusiboagoa izateko haiekin, eta betebeharrak hori pertsona-talde jakin batzuetara hedatu lezakete (adibidez, ikasketen, adin-tarteen, lan- zein lanbide-jardueren arabera, edo are eraginkortasuna areagotzeko nahiz kudeaketa hobetzeko ustezko arrazoiengatik orokortzen saia litezke). Kasu horretan, aukera-eskubidea murriztu liteke. Ezin da alde batera utzi **iraultza teknologikoko prozesu bizkorak aurrera egin ahala balitekeela administrazioak behartutako pertsonen taldea zabalduz joatea** eta, are, administrazio publiko motaren edo lurraldearen arabera oso desberdinak diren ereduak ezartzea. Horretarako, Administrazio publiko bakoitzari erregelamenduak egiteko esleitzen zaizkien ahalmenak kontuan izanik erraza ez den arren, horrelako araudiak harmonizatzeke edo homogeneizatzeke neurriak hartu beharko lirateke. Azterlanean zenbait irtenbide proposatzen dira, nahiz eta, aipatu moduan, APELaren 14.3 artikulua ukitutako pertsonen taldea erregelamendu-arau baten bitartez zabaltzeko gaitasuna ematen duen; horrek desparekotasun-egoerak sortu, eta herritarrak oso posizio desberdinetan jar ditzake, administrazio-prozedura motaren arabera edo gobernu-maila zehatz bakoitzarekin izan nahi duen harreman-motaren arabera. Bitarteko elektronikoei buruzko erregelamenduak ere ez du gauzen egoera hori aldatzen; izan ere, Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzera behartuta dauden pertsonen perimetroa mantentzen du eta prozedurari buruzko aipamen batzuk baino ez ditu gehitzen (3. artikulua). Lehen xedapen gehigarriak bakarrik xedatzen du enplegu publikorako sarbidea izateko hautapen-

prozesuetan bitarteko elektronikoak nahitaez erabili behar direla, baina ez da oinarritzko araua eta Estatuko Administrazio Orokorrari, haren erakunde publikoei eta zuzenbide publikoko entitateei (lotutakoei zein mendekoei) soilik aplikatzen zaie. Planteamendu horrek ez duenez pertsonen edo taldeen arabera bereizketarik egiten eta ez duenez inolako salbuespenik ezartzen, doktrinan kritikatu dute (Fondevila Antolín). Estatuko Administrazio Orokorrean ezarritakoan, oso posiblea da oraindik ezarrita ez daukaten gainerako administrazio publikoetara hedatzea, erregelamenduen bidez.

Hemeretzigarrena.- Teknologia disruptiboan eta gizarteak datozen urteetan biziko duen digitalizazio biziaren eraginez, zalantzarik gabe COVID-19aren etapak bultzatuta eta joan den apirilaren 30ean Europako Batzordeari aurkeztutako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plan berriari lotutako digitalizazio-proiektuetan inbertitzeko laguntzen eta maileguen bidez Europar Batasunak aurreikusitako berreskurapen-neurriek sustatuta, **behar-beharrezkoa da atentziorik ematea prozesu horien ondorioz herritar batzuk harreman telematikotatik "birtualki" baztertuta gera ez daitezen.**

Nahitaezkoa litzateke behin eta berriz aipatutako eten digitalak azkenean desparekotasun-egoera larriagoak sortzeko arriskua saihestea, hori gertatuz gero bi herritar-mota sortuko liratekeelako: administrazio publikoekin harreman digitalak izateko gaitasuna daukatenak (haiek kudeaketak *Espainiako Agenda Digitala 2025*ek eta *Administrazio Publikoak Digitalizatzeko Planak* iradokitzen dituzten erosotasunekin eta erraztasunekin egin ahalko dituzte) eta beste herritarrak (baliabide ekonomiko eskasagoak daukatenak eta behar diren oinarritzko gaitasun digitalak ez dituztenak); azken horiek ohiko bitarteko fisiko edo presentzialen bidez jardun beharko lukete, eta haien sarbideak gero eta minoritarioagoak eta itxiagoak izango lirateke.

Dokumentu horiek, eten digitala (batez ere generoari dagokiona) agerian jartzen duten arren, ez dute ezartzen kohesio soziala indartzea xede duen jarduketara-ildorik, neurririk edo osagairik, nahiz eta aurkezturiko Berreskurapen Planaren ardatzetako bat izan. Beraz, oztopo digitalak herritar ugari kanpoan uzten dituzten benetako harresiak bihur daitezke, eta erraza da horrek egiazko diskriminazioko egoerak ekartzea. Horrenbestez, funtsezkoa da administrazio publikoek beharrezkoak diren baliabideak inbertitzea eta egokiak diren bitartekoak jartzea nahitaezko izapideak bitarteko digitalez egiteko ez baliabide teknologikorik ez gaitasun digitalik ez daukaten herritarrei laguntzeko. Horrela, arreta-zerbitzu indartuak eman litezke teknologietara ohitzen laguntzeko, laguntza presentzialaz, telematikoz eta telefono bidezkoaz, baina baita erregistrokoak bakarrik ez diren laguntza-bulegoez ere; azken horiek bitarteko teknologikoak (ordenagailuak) eta langile egokiak eduki beharko lituzkete, abantailarik gabeko herritar horiek inklusio digitaleko estatusa eskura dezaten eta Administrazioarekiko elkarrekintza guztietan beren teknologia edo Administrazioarena erabili ahal izan dezaten. Horretarako, eraginkortasunez bultzatu behar dira teknologia digitalari buruzko prestakuntza-programak eta bitarteko teknologikoak eskuratzeko sustapen-politikak. Erabat ezinbestekoa da administrazio

publikoek lehenbailehen herritar ez-digitalizatuentzako trantsizio- eta laguntza-estrategia bat diseinatzea, herritar horien posizioa indartu, haien eskubideak bermatu eta eten digitalaren ondorioz sor daitekeen balizko diskriminazioaren foku oro saihestu ahal izateko.

Hogeigarrena.- Digitalizazioak eta iraultza teknologikoak aurrera egin ahala, gizarte-, genero-, adin- eta ekonomia-eten digitala sortzeko aukerak gero eta ugariagoak izan daitezke bitarteko teknologikoak erabiltzeari ala ez erabiltzeari dagokionez. Horixe aitortzen ari dira eremu horretan proiektio ezaguna duten espezialistak eta saiakeragileak (adibidez, Pol Antràs, Harvard Unibertsitatekoa). Izan ere, baliteke funtsezko eskubideen babes eta, bereziki, datu pertsonalen babes, zeina beste guztietara hedatzen baita, arriskuan jartzea; hortaz, prebentzio-neurri guztiak (arriskuen ikuspegia), neurri tekniko eta antolaketa-neurri guztiak hartu behar dira, baita DBEOak kasu horietan eskatzen dituen arrisku-analisia eta eraginaren ebaluazioa egin ere. Haustura soziala ere arriskuan dago, digitalizazio bizkorreko prozesu disruptiboak sakondu ditzakeelako, egoera izugarri larrietara heldu arte. Hori dela eta, inoiz baino garrantzitsuagoa da arautzea edo, nahiago bada, kontu horiei guztiei beren eskumenen eremuan heltzen dieten **arau-esparru orokorrak, autonomikoak, foru-aldundikoak eta tokikoak ezartzea.** Lehen azaldu den bezala, eskubide digitalen gutunen onspena eta bitarteko horiek erabiltzen dituzten herritarrentzako babes orokorreko mekanismoak bultzatu behar dira, baina, batez ere, gizarte-bazterketa arintzeko neurriak ezarri behar dira, politika aktibo handinahiak garatuz. Digitalizazioaren arloko Europako funtsetatik datozen inbertsio-proiektuek inklusio digitala lehenetsi, eta eten digitala pixkanaka deuseztatu beharko lukete, baita trantsizio edo eraldaketa digital hori herritar guztiengana heltzeko bitartekoak jarri ere, ekonomiaren edo industriaren eremura mugatuta gera ez dadin. **Digitalizazioa prozesu geldieztina da, baina haren benetako zentzua, Europar Batasunak aitortu den moduan, Europako balioak, giza eskubideak eta askatasun publikoak errespetatzean eta indartzean datza. Pertsonen zerbitzura dagoen teknologia, eta ez teknologiaren menpe dauden pertsonak.**

VIII.Herritarrek teknologia disruptiboek dagokienez dauzkaten eskubideen babes

Hogeita batgarrena.- Nahiz eta egindako galde-sortarako erantzunen arabera oraindik argitasunik ez ikusi euskal administrazio publikoen lehentasunen ordenan, **automatizazio-prozesuak eta adimen artifizialeko prozesuak gero eta biziagoak izango dira administrazio-prozeduren gaineko eraginari dagokionez ere eta, beraz, herritarren eta interesdunen eskubideei eragingo diete, zuzenean zein zeharka.** Gaur egun, fenomeno horien arauketa oso badaezpadakoa da, dotrina akademiko zilegituenak ere azpimarratu duen moduan. Eta badaezpadakotasun horrek badu eragina edo eragina izan dezake herritarrek Administrazioarekiko duten posizioan eta haien eskubideen bermean. Egungo oinarrizko arau-erregulazioa prozedura automatizatuak aitortzera mugatzen zen (SPAJLaren 41. artikulua), baina ez du ezer xedatu beste teknologia disruptiboagoak, adibidez, adimen artifizial iraulia, administrazio-erabakiak algoritmoen bidez hartzeko aplikatzeari buruz. Sektore

